

Zertan den Euskadi

2012ko Bigarren Seihilekoa
Ekonomia Analisia

- **Espainia: hazkunde apaleko aurreikuspenetik atzeraldira**
- **Desoreka txikiagoek eta irekitasun komertzial handiagoak**
Euskadiren doikuntza Espainiakoa baino arinagoa izatea ahalbidetuko dute, baina ez BPGren jaitsiera saihesteraino.
- **Egiturazko erreformak**, euskal ekonomiaren abantailak indartzeko aukera.
- **Hezkuntzaren hobekuntza eta atzerriko inbertsio eta kontsumoaren erakartzea**, hazkunderako aukerak.

Aurkibidea

1. Laburpena.....	3
2. Ingurune globala eta Espainiako ekonomia.....	4
3. Euskadiko ekonomia: egoera eta perspektibak.....	9
1. Errekoadroa. EAEko jarduera ekonomikoari buruzko inkestak: hiru hiruhileko triste.....	18
4. Turismoa Euskadin: Guggenheim efektuak 15 urte.....	20
5. Autonomia-erkidegoen hezkuntza-jarduna.....	27
6. Taulak	34

Itxiera data: 2012ko apirilaren 12a

1. Laburpena

Munduko hazkunde ekonomikoak behera egin zuen nabarmenki 2011ko azken hiruhilekoetan, Europa ahulduta baitzegoen finantza-tentsioek luze jo dutelako eta garatze bidean diren ekonomiak, gainberotzea saihesteko, politika murriztaileagoak egiten ari direlako. Hala ere, garatze bidean diren ekonomien dinamismoa handia izango da, eta, horren ondorioz, munduko ekonomiak hazkunde handia izaten jarraitu du, % 3,5 ingurukoa. Dena den, Europako ekonomiaren jokaeraren gaineko arriskuak handitu egin dira, hiru arrazoiengatik. Lehenik eta behin, estatu subirauek sortutako defentsa mekanismoen eraginkortasunaren gaineko zalantzengatik; bigarrenik, hazkundearen gaineko zalantzengatik, epe laburrean eragin garbirik ez duten egiturazko erreformen agenda eta zerga-finkatze prozesu proziklikoa medio; eta hirugarrenik, europar gobernantzaren gaineko aurrerapauso esanguratsu ezagatik.

Kanpoko ziurgabetasunari, Espainiako ekonomiak egiturazko desoreken zuzenketak gehitu behar dizkio, honako hauen eragin koiunturalaz gain: konfiantza galera, esportazioen hazkundea moteltzea, 2011ko zerga-helburuak ez betetzearen ondorioz 2012an zergen doikuntza handiagoa gertatzeko espektatiba edota jardueraren eta, bereziki, enpleguaren gutxitzea. Hala, 2011n Espainiako ekonomiak % 0,7ko urteko batez besteko hazkundea izan zuen, baina 2012an % 1,3ko uzkurdua jasango du.

Testuinguru horretan, beraz, abiarazitako erreformen sinesgarritasuna eta ahalmena funtsezkoak izango dira testuinguru hau aldatzeko. Erreforma horiek egiturazko aldaketa positibo gisa barneratu ahala, etorkizuneko susperraldia indartsuagoa eta iraunkorragoa ahalbidetuko lukete.

Nazio-mailako egoera horrek eragina du Euskadin, hein txikiagoan bada ere. Beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, egoera hobea du Euskal Autonomia Erkidegoak, eta, horri esker, barne-ekonomian eragin txikiagoa izango du, kanpo-sektorearen ekarpena handiagoa izan da 2011n, eta horrela jarraituko du 2012an ere. Hala, INEk argitaratutako informazioaren arabera, Euskadiko ekonomia % 1,3 hazi zen 2011n, Espainia bere osotasunean baino sei hamarren gehiago. 2012an, jarduera % 0,6 gutxituko den arren, beste autonomia-erkidegoekiko aldeak positiboa izaten jarraituko du EAErentzat, eta iaizko tamaina bertsuan.

Bai barne-ekonomiak, egiturazko doikuntza premia txikiagoengatik eta lan-merkatuaren baldintza hobeengatik, bai kanpo sektoreri irekiago egoteak (barneko merkatuak baino hazkunde handiagoko merkatuetara zuzenduta) babestu egiten dute Euskadiko ekonomiaren jokabide hobexeagoa. Hala eta guztiz, Europari eta Espainiari eragiten dioten zailtasunek eta, zehazki, asaldura finantzarioekin lotutakoek, eragin negatiboa izanen dute Euskadiko ekonomian eta, horri, duela gutxi espero zena baino zerga-finkatze handiagoa gehitu behar zaio, 2011ko defizit helburua ez betetzearen ondorioz. Horrek guztiak 2012an euskal ekonomia atzeraldia eragingo du, 2013an pixkanaka gaudituko dena.

Horrek guztiak adierazten du aldizkari honen aurreko zenbakian planteatutako egoerarekin alderatuta, perspektibek okerrera egin dutela, aipatutako arazoak poliki bazen ere ebatzea planteatzen baitzen zenbaki hartan eszenatoki nagusi gisa. Bederatzi hilabete geroago, eta BBVAk bere bulego sarean egindako inkestek ere hala adierazten dute, suspertze espektatiba haiek ez dira hezurmamitu.

Euskadik baditu bere alde zenbait ezaugarri Espainiako batez bestekoarekiko, esate baterako, familien aurrezki-tasa handiagoa, lan-merkatuko behin-behinekotasun eta langabezia-tasa txikiagoak, etxebizitzaren gehiegizko eskaintza txikiagoa edota giza kapitalaren eta azpiegituren zuzkidura handiagoak; horrek azaltzen du zergatik agertzen duen ekonomia honek erresistentzia handiagoa, krisiaren izaerak lotura txikiagoa duenean nazioarteko merkataritzarekin. Dena den, horrek ez du kentzen askotariko erreformen bidez planteatutako egiturazko aldaketetatik lor daitezkeen mozkinak esanguratsuak izateko, eta, horien bidez, epe erdi eta luzera, autonomia-erkidego honek Europako beste eskualdeen aurrean bere hazkunde potentziala eta posizio lehiakorra hobetzea ahalbidetzeko. Ildo horretatik, aldizkari honetan Euskadiko ekonomiak aurre egin behar dien balizko bi aldaketa aztertzen ditu. Horietako batean, hezkuntza-sektorean, Espainiako batez bestekoarekin alderatuta emaitza positiboak dituen arren, oso litekeena da sektorean egindako inbertsioen errendimendua hobetzeko tartea izatea. Bestea turismoa da, BPG osoan horrenbesteko pisua ez duen arren, Euskadiko ekonomiaren irekitze-prozesuan egindako aurrerapenen adierazle baita. Egiatzki, nazioarteko merkataritzaren bidez beste merkatuekin ezarritako harremanak abantaila dira Euskadiko ekonomiarentzat, beste eskualde batzuekin alderatuta. Horrezaz gain, merkatu turistikoa zabaltzeko aukera edota atzerriko inbertsio zuzen gehiago erakartzeko aukera, epe erdi eta luzera, hazkundea hobetzen laguntzeko jorratu beharreko beste bide batzuk dira.

2. Ingurune globala eta Espainiako ekonomia


Munduko ekonomia moteltzen ari da...

Munduko hazkunde ekonomikoak behera egin zuen nabarmenki 2011ko azken hiruhilekoetan, Europaren hazkunde ahulagoaren (laugarren hiruhilekoan beheraldia gertatu zen) eta garatze bidean diren ekonomiak geldotzearen ondorioz. Hala ere, bi inguru horietan ekonomia moteltzeko arrazoiak arras desberdinak dira. Europari dagokionez, finantza-tentsioen iraunkortasunaren eragina jasaten ari da, krisiari irtenbideren bat emateko aurrerapen erabakigarriak egin ez delako; garatze bidean diren ekonomien kasuan, aldiz, politika murriztaileagoen ondorio da moteltze hori, eta ekonomia horiek gainberotzea saihesteko diseinatu dira politika horiek.

... baina dinamismo handiagoa aurreikusten da 2012ko bigarren erdirako


Etorkizunari begira, 2012ko bigarren seihiilekoan susperraldi globala gertatzea espero dugu, garatze bidean diren ekonomiek bultzatutakoa, herrialde horietako barne-politikek barne-ekonomiaren hazkunderen alde egiten duten heinean jazoko dena. Horrekin batera, AEBen hazkundera aurreko susperraldietakoa baino txikiagoa izango den arren, Europakoaren oso gainetik egongo da, urte honetan Europako BPG % -0,5 txikituko dela aurreikusi baita, eta 2013an susperraldi geldoa espero baita. Dena den, azpimarratu behar da proiektzio horiek bi aldagai hauen menpe daudela: zorraren krisiari irtenbide azkar samarra bilatzearen menpe, eta, bestalde, finantza-tentsioak murriztearen menpe. Hala gertatzen ez bada, hazkunderen gaineko eragina are handiagoa izango da. Europako erdiguneko eta periferiako herrialdeen hazkunde-tasen arteko aldeak handiak izaten jarraituko dute, batetik, zergen doikuntza gogorraren ondorioz, eta, bestetik, periferiako herrialdeetan gertatzen ari den gain-zorpetzearen zuzentzearen ondorioz.

1. Grafikoa

Finantza-tentsioen BBVA indizea


Iturria: BBVA Research

2. Grafikoa

BPGren hazkundera (urte arteko %)


Iturria: BBVA Research, NDFn oinarritua


Beherakadarako arriskuak dira nagusi, Europako politikek une honetan dauden ziurgabetasunak murrizteko zain

Urritik hona aurrerapenak gertatu diren arren, Europak bizi duen krisiari behin betiko irtenbidea bilatzeko erabakimen handiagoa behar da funtsezko hiru alderditan. Lehenik eta behin, Greziako zorrari konponbidea bilatu ondoren -epe laburrean, behinik behin-, beharrezkoa da kaudimena duten herrialdeak kutsatzea saihesteko sortutako tresnak (EFSF eta ESM) sendotzea eta malgutzea; horrela, likidezia-arazoak areagotzea saihesteko da, finantza-merkatuak normalizatuko dira, eta sektore pribatuak berriro jo ahal izango du merkatuotara. Bigarrenik, nahitaezkoa da hazkundera

sustatuko duten egiturazko erreformak abiaraztea, baita finantza-erakundearen egoera hobetuko dutenak ere, baina gain-zorpetzearen bat-bateko zuzenketa eta kredituen murrizketa eragin gabe. Azkenik, eurogunearen gobernantzan azken aldiaren onartutako hitzarmenen eraginkortasuna nabarmentzen hasi behar da, zerga-batasuna lortzeko ibilbidea argitu dezaten, moneta-batasuna sendotu dezaten, etorkizuneko krisiak aurreikus ditzaten eta Europako erakundearen eta herrialdeen sinesgarritasuna handitu dezaten.


Gobernantzaren hobekuntza nabarmentzen hasten den heinean, Europako erakundeek egitura-defizita murrizteko helburua izan beharko lukete, ezen ez defizit nominala edo korronea, ziklo ekonomikoaren arabera doitu gabea; hala, behar baino zerga-politika proziklikoagoak saihestuko lirateke, horrek eragin negatiboak izango bailituzke hazkundean.

3. Grafikoa

Desoreka makroekonomikoak

Iturria: BBVA Research

4. Grafikoa

10 urterako zorraren diferentzial subiranoak

Iturria: BBVA Research

Espainiako ekonomia atzeraldian berriro


Espainiako ekonomiaren desoreken zuzenketei honako hauek gehitu zaizkie: konfiantza galtzea, esportazioen hazkundea moteltzea, 2011ko zerga-helburuak ez betetzearen ondorioz 2012an zergen doikuntza handiagoa gertatzeko aukera, eta 2011ko laugarren hiruhilekoan gertatutako jardueraren eta, bereziki, enpleguaren galera. Hala, 2011ko urteko batez besteko hazkundea % 0,7koa izan zen.

Ziurgabetasun handiagoko inguru bat egiaztatzen bada, Espainiako ekonomia garatzeko hainbat oinarritzko adierazle okertuko dira. Alde batetik, finantziarioa eskuratzeko zailtasunak izango dira aurrera begira ere, eta berau garestiagoa izango da, Europak bizi duen finantza- eta banku-zorraren krisiaren ondorioz. Arrisku-primak handitzearen ondorioz eta duela urtebetekoak baino zerga-plan handizaleagoak abiaraztearen eta nazioarteko merkataritzan ikusi den moteltzearen ondorioz, Europako hazkundeari buruzko aurrikuspenek berrikuspen garrantzitsua beharko dute, eta, ondorioz, Espainiako esportazioek eskaera ahulagoa izango dute.

Barne-faktoreei dagokienez, aldaketa nagusia defizit publikoaren helburuak izan duen desbideratzetik iritsi da. Aurreko guztiaren azken emaitzak Espainiako ekonomiaren hazkundearen beherazko berrikuspena ekarriko duen arren, aldeko zenbait faktore ere badira. Esate baterako, Europako Banku Zentralaren moneta-politikak (eta likidezia-politikak) eskaria eta finantza-egonkortasuna babesten ditu, duela hiru hilabete espero zena baino hein handiagoan behintzat; horrekin batera, Europaren eta munduko gainerako lurraldeen arteko hazkunde-diferentzialak gero eta handiagoak direla kontuan hartuta, euroa gehiago ahulduko da, eta horrek enpresa esportatzaileen lehiakortasun-irabaziak azkartu egin ditzake.

5. Grafikoa


Espainia: behatutako BPGren hazkundera eta MICA-BBVA Ereduaren aurreikuspenak (% H/H)



Egungo aurreikuspena: 2012ko apirilaren 4koa
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

6. Grafikoa

Espainia: BPGren hiruhilekoko hazkunderari egindako ekarpenak



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


2012an BPG % 1,3 jaistea eta 2013an suspertze geldoa gertatzea espero da. Suspertzea handiagoa izango da iragarritako egiturazko erreformak behar bezain handizaleak badira

Laburbilduz, BPGk 2012an behera egingo duela aurreikusten da, eta, egungo egoerari eutsiz gero, suspertze geldoa izango du. Baina aurreikuspen horiek aldatu egin daitezke egitura-politika handizaleak azkar eta erabakimenez abiarazten badira, izan ere, politika horiek modu eraginkorrean gauzatuz gero, doikuntza arinagoa gertatuko bailitzateke (enpleguaren arloan, nagusiki), eta suspertze azkarragoa eta sendoagoa gertatzeko beharrezko baldintzak sortuko bailirateke.

2011ko defizit-helburuarekiko desbideratzea albiste txarra izan da herri-administrazioen sinesgarritasunari begira. Beraz, 2011. urtean hautemandako desbideratzea orekatuko duten neurriak abiarazteko premia areagotu egin da, konpromisoak beteko direla bermatzeko, autonomia-erkidegoetan kontrol eraginkorrerako tresnak aktibatzeke -horiek izan baitira konpromisoen hausle nagusiak- eta, azken batean, kontu publikoen sinesgarritasuna berreskuratzeko.


Horrekin lotuta, Estatuak erantzun sendoa eman du, eta harrera ona izan du, baina oraindik ere ez da nahikoa aurtengo helburuak beteko direla bermatzeko. Gizarte Segurantzari dagokionez, diru-sarrerak sortzeko enplegua sortu behar diren menpe egonik eta egiten dituen gastuen zurruntasuna kontuan hartuta, zaila izango da erakunde horrek urte honetarako aurreikusitako helburuak lortzea.

7. Grafikoa

Herri Administrazioak: finantziario-ahalmena (+)/ beharra (-) (Oinarria: 2008, BPGren %)

Iturria: BBVA Research, INEn oinarritua

8. Grafikoa

Espainia: egitura-defizitaren hobekuntza (BPGren %)

Iturria: BBVA Research

Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege Organikoaren bidez, Espainiak aurrea hartu dio Europako 25 herrialdek hurrengo Kontseiluan sinatuko duten Egonkortasunari buruzko Hitzarmenari

Epe erdian finantza publikoen egonkortasunarekin hartutako konpromisoari eta autonomia erkidegoen gainera kontrolari dagokienez, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege Proiektu Organikoak mezu argia eta irmoa igortzen die Europako gainerako bazkideei. Espainia da horrelako lege bat onartzen duen lehenengo herrialdeetako bat, eta badirudi adostasun politiko handiz lortuko duela, gainera.

Proiektu horrek argitalpenotan babestu izan ditugun hainbat proposamen jasotzen ditu, besteak beste, egitura-defizitarekin lotutako zerga-helburuak zehaztea, zerga-arau orokor bat ezartzea herri-administrazioen maila guztietarako, edo informazioaren gardentasuna areagotzea, zerga-politikak modu egokian ebaluatu ahal izateko. Gainera, arau horiek betetzera bultzatzeko tresna praktikoak eta sinetsgarriak sustatzen ditu. Hala ere, oraingo ez da jendaurrean aurkeztu ekonomiaren egoera ziklikoa zehazteko erabiliko den metodologia.

Metodologia argia eta erraza, kanpotik ebalua daitekeena eta modu errazean errepika daitekeena ezartzea ere beharrezko baldintza da erreformak arrakasta izan dezan. Are gehiago, argi eta garbi adierazi behar da defizitaren helburua egiturazko terminoetan zehaztu behar dela, eta zorra murrizteko prozesua azkartzeko bete beharreko baldintzei buruzko zalantzak saihestu behar dira, hala, zerga-politikak desorekak ekar ditzaketen ekintza proziklikoak susta ez ditzan.

Estatuaren aurrekontua 2012rako: aurrerapauso garrantzitsua, baina zenbait ziurgabetasunekin

Aurrekontuak 27.300 milioi euroko doikuntza egin du, eta ia berdina banatu da gastuaren murrizketaren eta diru-sarreraren hazkundearen artean. Doikuntza horrek nahikoa izan beharko luke Estatuak aurtengo defizit-helburua lor dezan (BPGren % -3,5), eta, horregatik, Europako erakundeek onartu egin dute. Haatik, bi alderdi hauek izan behar dira kontuan: alde batetik, gobernuak aurreikusitakoa baino jardueraren beherakada handiagoa gertatuz gero, diru-sarrerak gutxitu egingo lirarteke, eta, beraz, defizitean ere desbideratzea gertatuko litzateke; bestetik, aurrekontu horrek ez du informazioz ematen autonomia-erkidegoei eskatutako finkatze-prozesuari buruz, horiek ere beren defizita murriztu behar baitute, BPGren % 2,94tik % 1,5era arte; izan ere, autonomia-erkidegoak dira osasun eta hezkuntza arloetako gastuen arduradunak. Alde horretatik, autonomia-erkidegoetan eragina izango luketen diru-sarreraren hainbat hobekuntza-neurri abiaraz zitezkeen aurrekontuan, erakundeon diru-sarrerak hobetzeko.


Lan-merkatuaren erreforma berriak 2012ko doikuntza berriro ere enplegu suntsiketara mugatzea saihestu behar du

Enpresek eta langileek beren lan-baldintzak aldatzeko dituzten eragozpenen ondorioz, 2007 eta 2009 artean, Espainiako lan-merkatuaren doikuntzak soilik enpleguan izan zuen eragina, lan egindako ordu-kopuruan ere eragin beharrean. Horregatik, barneko malgutasun-tresnen aldeko apustua, soldaten neurritasunerako deia eta errendimenduaren arabera ordainketaren sustapena -enplegurako eta negozioak kolektiborako 2012- 2014ko hitzarmenean eta, bereziki, otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuan, lan-merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzkoan, jasotakoa- gogoz hartu dira, eta parlamentuan bideratzen direnean hobekuntzak izan ditzakete. Lan-erreforma berria aurrerapen handia da, enplegu-suntsitzearen aurrean barne-malgutasuna sustatzen baitu, eta oso garrantzitsua da hori, Espainiako lan-merkatuaren egoera kontuan hartuta, urte honetan langabezia-tasak % 24tik gora joko baitu. Zehazki, positiboa da hitzarmenen behin-behineko luzapen automatikoaren garrantzia murriztea (ultra-aktibitatea deritzona, guztiz desagertuko ez den arren), enpresa-hitzarmenek sektore-hitzarmenen aurrean lehentasuna izatea, arrazoi objektiboengatik langileak kaleratzeko aukera izatea eta kaleratzearen ordeko neurriak erabiltzeko aukera izatea, hala nola soldaten edo lanaldiaren barne-doikuntza.

Hala ere, lan-erreformaren eragina hobetu egingo litzateke, aipatutako horiez gain, egungo kontratuen menua murriztuko balu, adibidez, bidezko kaleratzeetan, enpresan aintzinasunaren arabera ordainsaria izateko tresna bat aplikatuz, hala, behin-behineko kontratuen aurrean, kontratu mugagabeen erabilera sustatzeko; eta baita banako kapitalizazioa kontu-sistema baterantz joko balitz (eredu austriarra). Horrekin batera, babes-klausulak desagertzea ere desiragarria litzateke, prezioen behin-behineko igoerek soldatetan eragitea eta bigarren itzuliko eraginaren bitartez espiral inflazionista sortzea saihesteko.

9. Grafikoa


Hazkunde ekonomikoa eta doikuntzaren deskonposizioa lan egindako orduen arabera (metatutako aldaketa 2007-2009, %tan)



Iturria: BBVA Research, INE eta EKn oinarritua

10. Grafikoa

Espainia: hitzarmen kolektiboan hitzartutako soldata-igoera eta babes-klausula H-1en (%)



Iturria: BBVA Research, MEYSS, MINHAP eta Eurostaten oinarritua


3. Euskadiko ekonomia: egoera eta perspektibak

Berretsi egin da atzeraldia 2012rako

Euskal ekonomiak, Espainia eta Europako enbeldotik, geldotze joerarekin amaitu zuen 2011 eta BPGren jaitsierekin hasi izango du 2012. 2011ko hirugarren hiruhilekoan hazkunderik ez izateak iragarri zuen jada hiruhilekoko tasa negatiboak etorriko zirela berriro, eta halaxe gertatu zen 2011ko laugarren hiruhilekoan ere (%-0,3). Hortaz, 2011ko lehen erdian somatzen zen susperraldia ez zen berretsi, eta are gehiago, eskura ditugun adierazleek erakusten dute euskal ekonomiak oraindik hiruhilekoen arteko zifra negatiboak izan ditzakeela 2012ko lehen zatian.

11. Grafikoa


Euskadi: BPGren hazkundera (UEEZ)



Iturria: Eustat eta BBVA Research

12. Grafikoa

Euskadi: BPGren hazkundera UEEZ (h/h) eta BBVAren inkestak (*)

(*) Muturreko erantzunen saldoa. Ikus Errekoadroa
Iturria: BBVA Research


Beheraldi berri horren oinarrian, eta beste faktorerik baztertu gabe, ziurgabetasun handiagoko ingurua dago, Europako zor subirauren krisiaren behin-betiko konponbiderik ezak, eragin negatiboa izan baitu eragileen konfiantzan, euskal ekonomiari eragiten dion finantziario kostuan, kapital fluxuetan eta, orohar, bazkide komertzial nagusien hazkunde aurrikuspenetan eta, horren guztiaren ondorioz, Euskadiko esportazioen bilakaeran. Hala eta guztiz, esportazioek oraindik joera positiboari eusten diote, dibertsifikazio hazkorra medio eta sektorearen ezaugarri izan diren produktibitate irabaziak lagun. Barne sektoreari dagokionez, desoreken zuzenketek jarraitzen dute, bai hedaldi garaian pilatutakoenak (zorpetze pribatua, etxebizitzaren gain-eraketa), bai krisi garaikoenak (langabezia, defizit publikoa), honek barne eskariaren bilakaera baldintzatzen duelarik. Horren erakusgarri dira kontsumo pribatuaren geldotasuna (2011n +% 0,6 u/u) eta, bereziki, inbertsioaren jaitsiera (-% 2,8 u/u).

Barne eskariak ahul jarraitzen du, apaltzen ari den kontsumo pribatuarekin

Azken seihilekoan Euskadiko eta Espainiako ekonomiei eragin dieten faktore exogenoen testuinguruan, kontsumoak berrindartze esanguratsurik gabe jarraitzen du, familien gain-zorpetzea murrizteko prozesuagatik, etxebizitzaren prezioaren beherakadagatik, enplegu suntsiketagatik eta kontu publikoen orekatze prozesuagatik. Horren guztiaren erakusgarri dira txikizkako merkataritza-indizea eta BBVA Research-ek BBVAren bulego sarean egindako inkestak aurreratzen zuten bilakaera.

13. Grafikoa


Txikizkako merkataritza.
2007ko abendua, prezio konstanteak UEEZ



Iturria: BBVA Research INEko datuetan oinarrituta

14. Grafikoa

Familien aurrezki-tasa
(familien errenta gordin erabilgarriaren %)



Iturria: BBVA Research INEko datuetan oinarrituta


Nolanahi den, goian aipatutako hainbat desoreketan Euskadik duen posizio erlatiboa Espainiarena baino hobeaenez eta, BPG berrerortzearen mamia 2009koaz bestelakoaenez, doikuntza txikiagoa izan dadin eragin dute barne eskariarekin zerikusia duten adierazleetan eta, bereziki, kontsumoan. Hala, 2009an barne-eskariaren doikuntzarekin batera, nazioarteko merkataritzak beheraldi esanguratsua izan zuen, eta horrek eragin handiagoa izan zuen euskal ekonomian eta, bereziki, kontsumoan; 2011n, aldiz, esportazioek bilakaera nabarmen hobea izan zuten eta, horri esker, jardueraren doikuntza ere txikiagoa izan da lurraldean. Horrez gain, euskal familien posizio erlatibo hobea (aurrezki gehiago, langabezia-tasa txikiagoa) lagundu egin du kontsumoaren beheraldia txikiagotzen 2011n. Faktore horiek berak dira, zorpetze pribatu txikiagoa eta langabezia-tasan Espainiako batez bestekoarekiko 10 puntuko aldearekin batera -ia 20 puntuko aldea dago egoera okerrera duten autonomia-erkidegoekin alderatuta-, hurrengo hiru hilekoetan barne-eskariak jokabide hobea izango duela auresateko oinarri.

Kontsumo publikoa hasi da doitze-neurriak islatzen

Euskal finantza publikoak burutzen ari diren zergak finkatzeko prozesuan, kontsumo publikoa nabarmen doitu zen urtearen bigarren seihilekoan: lehen seihilekoan, % 1,4 u/u inguru haztetik, bigarrenean zifra negatiboak izan zituen, azken hiru hilekoan % 3,6 gutxitzeraino.

15. Grafikoa

Euskadi: eskariaren BPG (u/u %)



Iturria: Eustat eta BBVA Research


Hiruhilekoko Kontabilitate Autonomikoko zifrek erakusten duten doikuntza hori bera ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen gauzatzean ere. Laugarren hiruhilekoan, ordea, diru-sarreraren gainbehera indartu egin zen, baina ez ziren horrekin batera eta hein berean gastuak murriztu, eta, ondorioz, 2011ko defizita eskualdearen BPGren % -1,9ra iritsi zen (16. grafikoa). Izan ere, Euskadiko Foru Ogasunak aurreikusitakoa baino % 9,2 gutxiago bildu zuten 2011n (-1.025 milioi €).

Emaitza hori kontuan hartuta eta egin beharreko doikuntzak egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren defizita, kontabilitate nazionalaren arabera, BPGren % 2,6raino hazi zen, eta, beraz, ekitaldi horretarako erabakitako helburutik (% -1,3) oso gainera gelditu zen, baina gainerako autonomia-erkidegoen itxierako % -2,9tik beheraxeago. Bestalde, 2011ko ekitaldiaren itxieran, EAEren zor bizia eskualdeko BPGren % 8,1ean kokatu zen, eta erlatiboki gutxien zorpetutako autonomia-erkidegoen artean bigarren tokian kokatzen du horrek. 17. grafikoa ikus daitekeenez, zorpetze-maila txiki horrek Euskal Autonomia Erkidegoa nahiko posizio onean kokatzen du, gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta.

2011ko egonkortze-helburuarekiko desbideratzeak 2012ko ekitaldira bideratu zuen finkapenaren presioa. Beraz, Eusko Jaurlaritzak urte horretarako onartutako aurrekontuetan, % -1,3ko helburua 1^o betetzeko konpromisoa hartu zen, zerga-doikuntzarako zenbait neurri gehigarri ere hartuz, besteak beste, soldata publikoak izoztea, tasak igotzea edota laguntzak, diru-laguntzak eta prestazio ekonomikoak murriztea, gastuetan eta, bereziki, kapital-gastuetan, halako atxikipen bat eragiteko. Helburua ez betetzeko arriskua batik bat diru-sarreraren aurreikuspenarekin dago lotuta, Rover kasuaz Auzitegi Gorenak emandako epaitik datozen diru-sarreraren murrizketa barne hartuta ere: izan ere, oso espektatiba baikorrak erabili dira hazkunde ekonomikoari dagokionez, udazkenekoak izaki², eta, beraz, espero izatekoa da urtean zehar aurreikuspenak berrikustea eta, hala behar balitz, aurrekontuen egonkortasunerako helburua (eskualdearen BPGren % -1,5ean zehaztu da 2012rako) beteko dela bermatzeko neurriak hartzea.

16. Grafikoa


EAE: aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, OAPMn oinarrituta

17. Grafikoa

Autonomia-erkidegoak: defizita eta zor publikoa 2011n (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, OAPMn eta BdEn oinarrituta

Inbertsioak doitze-fiskala, finantziario baldintzen okertzea eta konfiantza galera islatzen ditu


Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) hamalau hiruhileko lotzen ditu erreskan urte arteko beharaldian: suspertzeko joera horren mailarik onena (2009ko laugarren hiruhilekotik urte arteko beharaldi txikiena) 2011ko hirugarren hiruhilekoan eman zen, urte arteko % 0,2koa; baina gorako bide hori eten egin zen 2011ko azken hiruhilekoan, % 2,8 gutxitu baitzen.

1: Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak egin ziren unean erabakitako helburua

2: Argitalpen honen datan, Eusko Jaurlaritzak berak hazkunde aurreikuspenak gutxitu egin ditu, nolabait, aurrekontuen doikuntza batean isla izan beharko lukeena.

18. Grafikoa

Euskadi: industria-giroaren indizea eta kapital finkoaren eraketa gordina




Iturria: BBVA Research, Eustat-en eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren datuetan oinarrituta

Bestalde, higiezinaren sektoreak doitze-prozesu betean jarraitzen du. Tentsio finantzarioek jarraitzeak, eta eszenatoki makroekonomikoaren berrikuspenak kalte egiten dio sektoreari, eta berorren susperraldia atzeratu egiten du. Hala ere, oro har, Euskadiren egoera ez da beste autonomia-erkidego batzuetakoa bezain kezagarria, haietan desoreka handiagoak baitaude eta, ziurrenik, egiteko duten doikuntza indartsuagoa izango baita.

Lehenik eta behin, saldu gabeko etxebizitza berrien stockak 2011rako estimatutako etxebizitza-parkearen % 2,2 adierazten du Euskadin, eta Espainiako ekonomia osotara hartuta, berorri dagokion % 4,1etik oso behera dago hori. Hala, eskaintzaren doikuntza txikiagoa izaten ari da, eta amaitutako etxebizitzetan, etxebizitza libreak eta askeak barne, % -0,2ko aldaketa eman da; aldiz, Espainian, % 35,4ko uzkuertzea gertatu zen 2011n. Euskadin gertatu den prezioen doikuntza handiagoak ere lagunduko zuen horretan. Hala eta guztiz ere, obra berriko jarduerak oso txikia izaten jarraitzen du, eta badirudi epe laburrera ez dela indarberrituko, eskariaren dinamismo faltaren eta finantziatorako zailtasunen ondorioz. Eskariaren testuinguru zailak berak zaildu egin du sektorea indarberritzea, nahiz eta, baldintzak aldatuz gero, gehiegizko eskaintza txikiagoa denez eta prezioak azkarrago doitu direnez, jarduera beste eskualde batzuetan baino azkarrago indartzea ere gerta daitekeen.

19. Grafikoa

Salerosketen aldakuntza eta etxebizitzaren gain-eraketa



Iturria: BBVA Research

...urtean zehar esportazioen marka ondu arren

2010eko lehen hiruhilekotik eta 2011. urte osoan, soilik kanpoko eskariak izan ditu hazkunde-tasa positiboak, nahiko altuak gainera. Esportazioak eta, neurri txikiagoan, inportazioak kanpo-sektorearen dinamismoaren adierazle dira, gaur egun barne-merkatuak erakusten ez duena.

2011n, Euskadiko esportazioek errekor historikoa hautsi zuten, 21.000 milioi € gainditu baitzituzten. Termino errealean aztertuz gero, 2011. urtean esportazioek suspertze bidean jarraitu zutela ikus daiteke, 2009an gainbehera handia izan bazuten ere; eta, lehen aldiz, hiruhilekoko esportazioetan 4.000 milioi €-ko batez bestekoa gainditu zen, batez ere urtearen bigarren zatian oso bilakaera ona erakutsi zutelako.


Esportazioen helmugari dagokionez, Euskadiko ekonomiak mendekotasun handia du merkatu tradizionalakiko: zazpi bazkide komertzial nagusietara (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Italia, Erresuma Batua, Belgika eta Portugal) zuzendu zen euskal esportazioen % 60. Hala ere, Eagles³ herrialdeek kopuru osoaren % 11 gainditzen dute (lehen aldiz, 2.000 milioi € gainditu dira), eta, beraz, 2003an zuten esportazio kuota, % 5,9koa, bikoiztu egin da ia. 2011n, euskal esportazioen helmugetan zortzigarrena izan zen Brasil, eta Txina, berriz, hamargarrena izan zen.

Dena den, euskal esportazioek mendekotasun handia dute merkatu garatuekiko, eta horren ondorioz, sektore esportatzaileen bilakaera baldintzatuta dago eta mugatu egiten du; azken urteetan Eagles herrialdeekin izan den bilakaera hobeak ekar zezakeen eragin positiboa. Horrela, 2009an, Euskadiko esportazioen beheraldia % 26koa izan zen, aurreko urtekoarekin alderatuta, Espainiakoa soilik % 15ekoa izan zelarik. Dena den, Euskadik Eagles herrialdeetara egindako esportazioak % 13 jaitsi ziren (% 14 Espainiaren kasuan).

Beraz, Euskadiko ekonomia suspertzeko oinarritzko gako dira, oraindik ere, kanpoan merkatuak irekitzen jarraitzea eta garatze bidean diren herrialdeetan presentzia hedatzea. Gaur egun eta etorkizunari begira herrialde horiek dituzten hazkunde-tasa handiek ahalmen handiko helmugak direla erakusten dute, merkatu tradizionalak eta, beraz, helduagoekin alderatuta.

20. Grafikoa


Hiruhilekoetako esportazioak
(2008ko milioi € iraunkor, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

21. Grafikoa

Euskaditik eta Espainiatik Eagles-era egindako esportazioen % eta Espainiako esportazioen euskal kuota



Fuente: BBVA Research a partir de Datacomex


Industria, euskal ekonomiaren oinarri, 2011 amaierako eskari jaitsiera pairatzen ari da

Euskadiko ekonomiaren eskaintza sektoreka aztertuz gero, azterketa horrek ez du ekonomiaren horren ikuspegi negatiboa erakusten, nahiz eta urtearen azken zatian halako moteltze bat gertatu den. Merkatu-zerbitzu ez direnek eta industriak 2011ko laugarren hiruhilekoko hazkundeari bakoitzak hamarren bat kendu bazioten ere, soilik eraikuntzak erakusten du ekarpen negatibo jarraitua azken urteotako BPGren hazkundean. Hiru sektoreen baturak azaltzen du ekonomia horrek laugarren hiruhilekoan izan duen hazkunde txikia (% 0,2 h/h), merkatu-zerbitzuek (% +0,5 h/h UEEZ) eta lehen sektoreak (% +0,1 h/h, UEEZ) oraindik jokaera positiboa izan arren, horrek ez baitzuen bestea konpentsatu. Aurrera begira, merkatu-zerbitzu ez direnek zailtasunak izaten jarrai dezakete 2012an, administrazio guztiak zergak finkatzeko prozesuan dabilatzalako bete-betean eta, beraz, berorien ekarpen negatiboari eutsi egingo litzaiokeelako.

3: Brasil, Txina, Egipto, India, Indonesia, Korea, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia.

Besterik da zer gerta daitekeen industrian. Europako ekonomiak bizi dituen zailtasunek are zailagoa egiten dute 2011n lortutako zifra positiboen parekoak ikustea esportazioetan. Eta, beraz, sektore horren ekarpena txikiagoa litzateke, eta are negatiboa izaten jarrai dezake urtearen lehen zatian; baina ganbio-tasa hobetzeak eta garatze bidean diren herrialdeetako hazkunde-erritmo biziari eusteak aukera ematen digute aurreikusteko berriro ere bai industriak eta bai kanpoko sektoreak beste eskualdeetan baino ekarpen positiboagoa egingo diotela ekonomiaren hazkundeari. Horrekin batera, eskariaren doitze-behar txikiagoak arrazoitzen ditu ekonomia honetan behatutako BPGren beheraldi txikiagoa eta 2013an bizkorrago irteteko aukera.

22. Grafikoa

Euskadiko BPG eta hazkunderako ekarpenak

Iturria: Eustat eta BBVA Research


Lan merkatua presiopean, eskatzaile berriak eta enplegu-erregulazio dosierren gehikuntza dela eta

Azkeneko Euskadin zertan den zenbaitik, lan merkatuak txarrera egin du, finantza tentsioen garaia luzetzeagatik eta horren ondoriozko gastu publikoaren doikuntzagatik. Gizarte Segurantzako afiliatzeen zifrek argi erakusten dituzte enplegu suntsitzearen ondorioak. Izan ere, 2011ko maiatzetik -bi hilabeteen hazkundera izatera iritsi zen-, Gizarte Segurantzako afiliatzeek behera egin dute berriro Euskadin urte arteko tasetan, eta gero eta biziago, gainera.

Euskadiko soldatapeko enpleguan izan den doikuntzan, enplegu publikoaren ekarpen negatiboa nabarmendu da; urte arteko tasan, behera egin du ondoz ondoko lau hiruhilabetekotan, 2009an gertatu lez. Urteko batez besteko mugikorrean, 2010ean sumatu zen hazkundera oso bizkor zuzendu zen 2011ko bigarren seihilekoan. Dena den, Euskadin, soldatapeko langile publikoen batez bestekoa 2006koa baino %4,6 handiagoa da 2011n, eta, aldiz, sektore pribatuan, soldatapeko langileak % 1,5 gutxiago dira garai horretan bertan; hori guztia, Espainiako gobernu berriak otsailean erabakitako lan-erreformaren aurretik.

23. Grafikoa


Gizarte Segurantzako afiliatzea
(urte arteko aldakuntza-tasa, %)



Iturria: BBVA Research Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuetan oinarritua.

24. Grafikoa

**Euskadi: soldatapeko langileak (urteko batez
besteko mugikorrarekiko aldakuntza % eta u/u))**




Iturria: BBVA Research Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuetan oinarritua.

Euskadiko lan-merkatuaren bereizgarrietako bat langabeziari buruzko zifretan enplegu-erregulazio dosierrek duten eragina da, eta, beraz, berorren bilakaeran horrek dakarren atzerapena, 2008an gertatu zenaren ildotik. Dena den, berriro ere, enplegu-erregulazio dosierren eraginean dauden langileen zifrak handitu egin dira, eta horrek, epe laburrera, langabezia-tasak berriro gora egitea ekarriko du. Bestalde, industria-sektoreko langabe berrien gorakadak eta ekonomia honen behin-behinekotasun txikiak langabezia-prestazioari dagokion estaldura duten langabeen proportzioa handitzea ekarri dute, eta familia horien errentaren gainbehera halako bigungarri bat da hori; beraz, kontsumoa horrenbeste ez jaitea ekar lezake horrek. Une honetan, gutxi gorabehera hiru langabetik bik ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioa jasotzen dute, eta batez beste Euskadiko langileen kotizazio aldia luzeagoa denez, gerta daiteke hurrengo hiru hilekoetan proportzioa Espainiako batez bestekotik gora kokatzea, aurreko hiru hilekoetan posizio kritikoagoa izan arren.

25. Grafikoa


**Erregulazio dosierren eraginepeko langileen
kopurua (hiruhileko, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuetan oinarrituta

26. Grafikoa

Langabetuen estaldura tasa (%)




Iturria: BBVA Research, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuetan oinarrituta

Horrez gain, garrantzitsua da kontuan hartzea Euskadin aurrez enplegurik izan ez duten erregistratutako langabeen kopuruak gora egin duela nabarmen; 2011ko abuztutik 2012ko urtarrilera, % 68 hazi zen kopuru hori Euskadin; Espainian, aldiz, % 14 hazi zen. Erregistratutako langabeen artean, % 64 ziren 2010eko abuztuan, eta 2012ko urtarrilean, berriz, % 9; horrela, Espainian erregistratutako langabezia-zifretara hurbildu zen, aurretiko gap edo aldea erabat desagertu arte,

zeina, neurri batean, Euskadiko demografiaren dinamismo txikiagoak azaltzen zuen. Horrek adieraz dezake Euskadin familia-buruek enplegua galtzearen aurrean, egoera hori bizi duten familietako zenbait kide, aurrez enplegurik izan ez dutenak, enplegu bila hasi direla.

27. Grafikoa


Estaladura-tasa eta esperientziarik gabeko langabeak (%)

Iturria: BBVA Research a partir de MEYSS

2012an jaitsiera txikiagoa ahalbidetzen duten Euskadiren egiturazko abantailak

Egiturari begirako ikuspuntu batetik, Euskadiko ekonomiak baditu abantaila batzuk, hazkundeari begira aldeko bereizgarri bat izatea eta, bereziki, produktibitatean eta biztanleko BPGn jokabide hobea izatea ekar dezaketenak. 28. grafikoa ikus daitekeenez, epe luzeko oinarritzko adierazleak (ekonomiaren egiturazko zurruntasunak, lan egiteko adinean dauden biztanleriaren ikasketa-maila eta biztanle horientzako azpiegituren zuzkidura) Euskadiko ekonomiaz nahiko ikuspegi baikorra izateko aukera ematen duten faktoreak dira; ondorioz, ekonomia horrek hazteko ahalmen handiagoa erakutsi beharko luke.

28. Grafikoa

Lanerako adinean dagoen biztanleko BPG (Espainia = 100)

Iturria: BBVA Research

Epe laburragoan, gainera, Euskadiko ekonomiaren arrisku-adierazleek eta aukera-adierazleek Espainian perspektiba hobek dituzten eskualdeen taldean kokatzen dute Euskadi, doitzeko beharra txikiagoa baita (ikusi 1. Koadroa). Beraz, epe laburrera, ekonomia horrek Espainiak oro har izango duena baino jokaera hobea izango du 2012an eta 2013an, aurtan beheraldia txikiagoa izango da, eta hurrengoan, berriz, hazkundera apur bat handiagoa, betiere, esportazioen joera onari eusten bazaio, horrek kanpoko eskaria sustatuko baitu; baina, halaber, desorekak zuzendu beharrak ere eragina izango du, nahiz eta Espainiakoak baino txikiagoak izan, sektore pribatuan eta, bereziki, publikoan, egiteke baitaude.

Ilido horretatik, badira epe erdira begira zehaztutako zenbait erronka, besteak beste: hazkunde handieneko kanpoko merkatuak dibertsifikatzea eta merkatu helduak finkatzea, esportazioen osagai teknologikoa indartuz, horiek sektore gutxi batzuetan kontzentratuta jarraitzen baitute.

1. Koadroa

Erkidego autonomoen kokapena arrisku faktore ezberdinekiko (*)

	MAD	EUS	NAF	ARA	KNT	GLE	AST	ERR	KAT	KAN	GAL	VAL	BAL	MUR	GMA	EXT	AND
Epe laburreko adierazle sintetikoa	0,9	0,9	1,2	1,3	1,2	1,5	1,4	1,4	1,5	1,8	1,4	2,0	1,8	1,8	1,8	1,8	1,8
Etxebizitzaren gain eskaintza	1	1	1	2	1	2	1	3	2	2	2	2	2	2	2	0	2
Etxebizitzaren prezioa (u/u erreala)	1	3	2	0	2	2	2	1	1	2	2	2	2	2	2	3	1
Kanpo sektorearen dibertsifikazioa	2	2	3	3	1	3	1	1	2	1	2	2	1	1	1	2	1
Sektore pribatuaren gain-zorpetzea	1	1	2	1	1	1	1	1	2	2	1	2	2	2	2	2	2
Langabezia tasa	1	0	1	1	1	1	2	2	2	3	1	2	2	2	2	2	3
Zor autonomikoa (BPGren %)	1	1	2	2	1	1	1	2	3	1	2	3	2	2	3	2	1
BPG per capita erlatiboa	0	0	0	2	2	2	2	2	1	2	2	2	2	2	2	2	2
Irekitasun komertziala (ondasunak eta turismoa)	2	1	0	2	2	2	2	2	1	1	1	2	1	1	2	3	2
Familien aurrezki tasa	2	1	0	1	1	2	2	1	2	3	2	2	3	2	1	1	2
Askatasun ekonomikoaren indizea	0	1	1	2	2	1	2	1	2	1	2	2	1	2	2	3	3
Giza kapitala	0	0	1	1	1	2	1	2	2	2	2	2	2	2	3	3	2
I+G / BPG	0	0	0	2	2	2	2	2	1	2	2	2	3	2	2	2	2
Azpiegiturak / LAP**	2	1	1	1	1	1	1	2	2	2	2	2	3	3	2	2	3
Adierazle globala	0,4	0,4	0,6	1,1	1,2	1,1	1,3	1,3	1,3	1,7	1,9	1,9	2,3	2,3	2,3	2,4	2,4


(*) Definizioak:

Etxebizitzaren gain-eskaintza: Saldu gabeko etxebizitzaren stocka / etxebizitza parke osoa. Etxebizitzaren prezio doikuntza: maximotik prezioak iznadako jaitziera. Esportazioen sektore dibertsifikazioa: sektore esportatzaile nagusiaren pisua esportazio guztiekiko. Sektore pribatuaren gain-zorpetzea: Mailegu eta depositoen ratioa beste sektore egoiliarretan. Kanpo sektorearen garrantzia ekonomian: Esportazioen pisua BPGn. Ekonomiaren zurruntasunak: "Askatasun Ekonomikoaren indizean" bateratu diren zenbait adierazle, eskualde batean negozio bat abiatzeko erraztasuna neurtzen dutenak. Giza kapitala: lanerako adina duen populazioan (LAP) zein portzentaik duen, edo gaingitzen duen, bigarren hezkuntza. Azpiegiturak / LAP: azpiegituren kapital fisikoaren stocka / Lanerako Adina duen Populazioa. Balio handiago batek (edo kolore argiagoak) arrisku maila handiagoa adierazten du. 3 dutenetan, aldagaiaren balioa Espainiako batez bestekoaren gainetik dago 1,5 desbiazio estandarretan baino gehiagotan. 2 eta 1 dutenetan, batez bestekotik 0,75 desbiazio estandarretara daude, gainetik eta azpitik, hurrenez hurren. 0 dutenetan, aldagaiaren balioa 1,5 desbiazio estandar baino beherago dago Espainiako batez bestekotik. BPG per capita erlatiborako, irekitasun komertzialerako eta aurrezki tasarako balioak alderantzizkoarekin daude. Adierazle globalak adierazle partzialen batazbesteko gisa kalkulatu dira.

Iturria: BBVA Research

29. Grafikoa

BPGren hazkundera: Euskadi eta Espainia (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

1. Errekoadroa. EAEko jarduera ekonomikoari buruzko inkestak: hiru hiruhileko triste

Inkestei erantzun dietenen iritziek negatiboak izaten jarraitzen dute, bai 2012ko lehen hiruhilekoan EAEn izandako jarduera ekonomikoari buruz eta bai urteko bigarren hiruhilekoari begira dituzten espektatibei dagokienez.

2012ko lehen hiruhilekoan, BBVAren bulego sareko inkestek nahiko ikuspegi negatiboa erakusten dute egungo eta etorkizuneko jarduera ekonomikoari buruz, 2011ko azken bi hiruhilekoetako joerari jarraiki. Espektatiben okerragotze hori gertatu den garaian, BPGk % 0,0ko eta % -0,3ko hiruhileko hazkundeak izan ditu; 2011 hasieran, jarduera nahiz espektatibak apur bat itxaropentsuagoak ziren, betiere, 2010eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan egindako gure lehen inkesten mailara iritsi gabe, eta bat zetozen hiruhileko horietan BPGk erakutsitako bilakaerarekin.

2011ko erdialdetik Europan nagusitu den ziurgabetasunak euskal ekonomiaren bazkide komertzial nagusiei ere eragin die, Espainia finantza-tentsioen jomugan kokatu da, eta lan-merkatuak bilakaera negatiboa izan du (bereziki eraikuntzar eta zerbitzu sektoreetan); horrek guztiak azken hiru inkesten emaitzetan inguruari buruzko ikuspegi negatiboa izatea ekarri du, ñabardura gutxiarekin.

Zehazki, turismoaren eta esportazioen arloetan ikuspegi hobea erakusten dute erantzunek, izan ere, 2012ko


lehen hiruhilekoan, inkestei erantzun dietenen % 10ek baino gehiagok horiek hiruhilekoan gora egin dutela pentsatzen jarraitzen du, eta gehiengo argi batek (% 60 inguru bi kasuetan) bi adierazle horiek egonkortu egin direla uste du.

Dena den, turismoak eta esportazioek ere euskal ekonomia osoan nagusitu den beheranzko joera erakusten dute. Izan ere, 2011. urteak euskal esportazioen errekor absolutua ezarri bazuen ere, 2010eko laugarren hiruhilekoan inkestei erantzun zieten % 20k baino ez zuen berorien hazkundea aurreikusi, eta kopuru hori txikituz joan da 2011ko inkestetan eta 2012ko lehenengo hiruhilekoan; azken bi inkestetan % 10era murriztu da kopuru hori, eta gero eta gehiago dira beherantz egingo dutela pentsatzen dutenak. Hala, bada, arlo horietan, inkesten bitartez jasotako informazioa adierazle errealek adierazten dutena baino ezkorragoa da sistematikoki.

Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspenak jarduera ekonomiko arruntaren pertzepzioarekin batera mugitzen ari diren arren (inkestei erantzun dieten pertsonen bi heren inguruk behera egingo duela espero du), 2012ko lehen hiruhilekoko aurretiazko datuen arabera, jarduera ekonomikoa hobetzea espero dutenen hazkunde txiki bat ikusten da. Hala ere, muturreko erantzunen joera ez da aldatu eta, grafikoak erakusten duenez, honek nahiko ondo hurbiltzen du hiruhilekoko BPGren bilakaera (UEEZ); bat dator hori gure ikuspegiarekin, hots, BPG doitzea dakarren egoera honetan, gogorrena 2012ko lehen hiruhilekoa izango den ustearekin.

30. Grafikoa

Euskadi: jarduera ekonomikoaren eta espektatiben bilakaera. Muturreko erantzunen saldoak (%)



Iturria: BBVA

Inkestei erantzun dietenen arabera, okerrera egingo duten adierazle partzialen artean honako hauek nabarmentzen dira: eraikuntza berriarekin lotutakoak, zerbitzu sektoreko inbertsioak, salmentak, eskari-zorhoa eta enplegua (adar guztietan). Lan-merkatuaren bilakaerari dagokionez, onartutako azken lan-erreformaren ondorengo espektatibak barnean egongo lirateke, inkesta apirileko lehenengo bi asteetan egin baitzen.

Industria sektoreko inbertsioari dagokionez, aitzitik, erantzun dutenen zati handi batek uste du egonkorra izango dela, jarduera orokorrean duen eraginarekin oro har, eta hori oso garrantzitsua da, Euskadiko ekonomia

hein handian industrialak dela kontuan hartuta. Gauza bera gertatzen da lehen sektoreko inbertsioarekin, nahiz horren garrantzia txikia den Euskadin.

Prezioetako emaitzek, bestalde, duela gutxi garraioek, erregaiek, gasak, argindarrak, eta abarrek izandako igoeren eragina jaso dutela dirudi, aurreko urteko lehenengo hiruhilekotik aldentuz, eta 2011ko azken hiruhilekoko emaitzak berretsiz.

2. Koadroa

Jarduera ekonomikoaren laburpen-koadroa. Euskadi (erantzunak %etan)

DATA: mar.-12	2012ko 1H			2011ko 4H			2011ko 1H		
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu
Jarduera ekonomikoa	1	33	66	1	35	64	9	34	57
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	4	28	68	1	29	70	10	41	49
Industria-ekoizpena	1	41	58	0	40	60	5	43	53
Eskari-zorhoa	1	28	71	2	30	68	7	40	52
Stock maila	4	52	44	3	55	41	3	57	41
Lehen sektoreko inbertsioa	1	65	34	2	63	36	2	69	28
Industriako inbertsioa	1	52	47	2	48	50	7	57	35
Zerbitzuetako inbertsioa	3	33	64	1	43	55	7	42	51
Eraikuntza berriak	2	20	78	2	24	74	5	36	60
Industriako enplegua	0	35	65	1	29	69	6	30	63
Eraikuntzako enplegua	3	29	69	3	40	57	9	44	47
Zerbitzuetako enplegua	1	23	76	1	23	76	2	28	69
Prezioak	25	58	17	26	62	12	6	38	56
Salmentak	1	28	72	4	36	60	4	36	59
Turismoa	11	58	31	28	48	24	27	57	16
Esportazioak	9	60	31	10	60	30	19	60	20

(*) Muturreko erantzunen saldoa.

Iturria: BBVA Research

4. Turismoa Euskadin: Guggenheim efektuak 15 urte


1997ko urriaren 18an inauguratu zen Bilbon Guggenheim Museoaren egoitza. Bizkaiko hiriburuak izandako eraberritzearen ikono horri eta indarkeriaren eta terrorismoaren apaltze progresiboari esker, Euskadiko turismoak hazkunde handia izan du azken urteotan, lagunarteko hizkeran "Guggenheim efektua" deritzona, eta, horri esker, modu nabarmenean handitu da turismoak euskal ekonomian duen pisua. Azken hamabost urteetan, adibidez, ostatu-gauak bikoiztu baino gehiago egin dira: 1997. urtean, ez ziren 2,1 milioira iristen, eta, 2011n, 4,6 milioi baino gehiago izan dira. Hoteletan egonaldia egin duten bisitarien kopurua, berriz, 1,5 milioi pertsonatik 2,6 milioira igaro da. "Efektu" izendapena, gainera, zifratara bihur daiteke: 1998an, Guggenheim Museoa irekita egon zen lehenengo urte osoan, ostatu-gauen kopurua Bizkaian aurreko urtekoa baino % 46 handiagoa izan zen.

Baina "Guggenheim efektua", gainera, iraunkorra da: 1999 eta 2011 artean, ostatu-gauak Euskadin izan duten hazkundera % 60koa izan da (% 24koa Espainian), eta atzerriarren egonaldiak bikoiztu egin dira ia (% +96,1 Euskadin, eta % +17,7 Espainian). Hein batean, Euskadi merkatu turistikora berandu iritsi izanaren ondorio da hori, Espainiako gainerako lurraldeetan (eta, bereziki, Mediterraneoko kostaldean, Balear Uharteetan eta Kanarietan) merkatu hori garatuago baitago. Zifrek argi erakusten dute Euskadiko sektore turistikoa ezin dela lehiatu -ez neurriari eta ez garrantziari dagokienez- Espainiar estatuko turismo-helmuga handiekin, baina badirudi bere tokia hartzen ari dela. Zertan den Euskadi aldizkariko atal honetan aldaketa horren arrazoiak aztertzen saiatuko gara.

Bestalde, bada Euskadira turista gehiago iristeko orduan garrantzitsua izan daitekeen bigarren faktore bat. 1998. urte bukaeran jardura terroristan emandako su-etenak bat egin zuen bisitarien eta ostatu-gauen kuotaren igoera⁴ handi batekin zuen, bai Estatuko turistena zein atzerriarrena (ikusi 16 eta 17 grafikoak). Su-eten hori bertan behera gelditu zenean, egindako aurrerapena eten egin zen, nagusiki turismo nazionalari dagokionez, eta une honetan orduan lortutakoen antzeko parte-hartzeak ikusten dira berriro. Aldiz, Espainiara iritsitako atzerriarrek Euskadin egindako egonaldiak gora egiten jarraitu dute. Kasu horretan, beraz, "Guggenheim efektua" nagusitu dela eta eragin iraunkorra ekarri duela esan daiteke, kuotaren mailan nahiz horren hazkundera ikus daitekeena, eta baita bisitari-kopuruan eta ostatu-gauetan ere.

31. Grafikoa


Euskadiren kuota Espainiako bidaiariei dagokienez



Iturria: INE eta BBVA Research, bi grafikoetan

32. Grafikoa

Euskadiren kuota Espainiako ostatu-gauetan



Iturria: BBVA Research, MEYSS, MINHAP eta Eurostaten oinarritua

4: Analisi honen helburua jardun terroristaren eragina neurtzea ez den arren, badira lanak euskal ekonomiarengan izandako eragina aztertzen dutenak. Euren artean, Abadie A. eta Gardeazabal, J. (2003): "The economic costs of conflict: A case Study of the Basque Country", The American Economic Review, vol. 93, 1. zenbakia, Martxoa.

Bizkaiko hazkundera gainerako lurraldeetara hedatu da...

Su-etenak sortutako hazkundera behin-behinekoa izan bazen, "Guggenheim efektua" iraunkorragoa izan da, baina euskal lurraldeetan izan duen eragina ez da homogenea. Hala, sektore turistikoak jaso dituen ondorio positiboak Bizkaira mugatu dira nagusiki, eta, hortik, erritmo txikiagoan bada ere, gainerako lurralde historikoetara ere hedatu dira. Tradizionalki Euskadiko gune turistiko nagusia Gipuzkoa izan bada ere, eta, horren barnean, hiriburua bereziki, azken urteetan aldaketa garrantzitsua gertatu da: Bizkaiak hartu du nagusitasun hori, eta Euskadin egiten diren ostatu-gaueetan 12 puntu portzentualeko igoera izan du. Guggenheim Museoa ireki aurreko aldiarekin alderatuta, Bizkaiak ostatu-gauak hirukoiztu egin dituelako gertatu da hori (bost urtekoen batez bestekoak neurtu dira). Hazkunde horren hedapenaren ondorioz, gainerako probintzietan ere hazkunde garrantzitsuak gertatu dira, baina; Bizkaikoak baino txikiagoak (ikusi 2. Koadroa); beraz, Euskal Autonomia Erkidego osoa kontuan hartuz gero, ostatu-gauak % 133 handitu dira. Horren aurrean, Espainian % 15eko igoera gertatu da.

3. Koadroa

Ostatu-gauak: lurraldeen xehetasunak

	Urteko batez bestekoa			Pisua		
	1992-1996*	2007-2011	Bar.	1992-1996*	2007-2011	Bar.
Araba	313.433	565.853	% 80,5	% 18,1	% 14,0	% -4,1
Gipuzkoa	824.060	1.590.869	% 93,1	% 47,6	% 39,5	% -8,2
Bizkaia	592.067	1.871.911	% 216,2	% 34,2	% 46,5	% 12,2
EAE	1.729.560	4.028.633	% 132,9	% 100	% 100	
Espainia	228.788.260	264.597.404	% 15,7	% 0,8	% 1,5	% EAE / Esp.

Espainiarako, 1994-1996 aldian hartu da kontuan
Iturria: Eustat, INE eta BBVA Research

... hiri-inguruetara nagusiki, kostaldeko turismoa bigarren mailan geldituz

Guggenheim efektuak, gainera, baditu beste berezitasun batzuk. Kantauriko kostaldeko ezaugarri klimatikoak ezin dira lehiatu Mediterraneoko kostaldekoekin, eta, beraz, turismoaren hazkundera barnealdeko udalerrietan kostaldean baino gehiago handitu da. Hala bada, nagusiki Bizkaian gertatutako turismoaren hazkundeak garrantzi handiagoa izan du barnealdeko udalerrietan, bereziki Bilbo inguruetan. Udalerrri horietako ostatu-gauak lurralde horretako heren bat dira ia, eta aztertutako bost urtekoetako batez besteko kopuruak seikoiztu egin dira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) barnealdeko ostatu-gauen multzoan ia 25 p.p. irabazita.

4. Koadroa

Ostatu-gauak barnealdeko eskualdeetan (hiriburuak eta kostaldea ez)

	Urteko batez bestekoa			%		
	1992-1996	2007-2011	Bar.	1992-1996	2007-2011	Bar.
Alava-Araba	83.508	153.023	% 83,2	% 24,2	% 14,1	% -10,1
Gipuzkoa	185.603	424.682	% 128,8	% 53,7	% 39,1	% -14,6
Bizkaia	76.559	507.241	% 562,5	% 22,1	% 46,8	% 24,6
CAPV	345.670	1.084.945		% 100	% 100	

Iturria: Eustat eta BBVA Research

Hortaz, Espainian garatutako beste eredu turistiko batzuen aurrean, izan kostaldeko udalerrietan edo hiruburu handietan (Bartzelona, Madril edo Granada lirakeke adibide batzuk), Euskadiko kasuak bereizgarritasun bat du: turismoa fokatzen den udalerriaren (Bilboren) mugez haraindiko hedapena gertatu da, inguruko udalerrietan ere ostatu-gauen hazkundera handia izan baita.

Aldirietan oinarritutako hiriko turismo horrek, halaber, planteamendu berria ekarri du hotelen sektorean. Barnealdeko udalerri horietan kokatutako hotel-kopurua modu nabarmenean handitu

da, baina, aldi berean, instalazio horien neurria ere handitu egin da. Izan ere, barnealdeko (hiriburuak eta kostaldea ez) hotelen kopurua hirukoiztu egin da Bizkaian, eta hotel horiek eskainitako toki-kopurua, berriz, bost aldiz handiagoa da. Beraz, hotelek, batez beste, bikoiztu egin dute jendea hartzeko gaitasuna, eta 25 pertsonentzako tokia izatetik 50 pertsonentzako tokia izatera igaro dira aldi honetan. Araban ere gauza bera gertatu da, eta eskainitako tokien kopurua establezimendu-kopuruak izandako hazkundera baino handiagoa da; hala ere, azken kasu horretan, hazkundera ez da Bizkaikoa bezain handia izan, eta batez besteko neurria 33 tokitik 36ra igaro da.

5. Koadroa

Hotelak eta tokiak Euskadiko barnealdeko udalerrietan (hiriburuak eta kostaldea ez)

	Hotel-kopurua (batez bestekoa)			Toki-kopurua (batez bestekoa)		
	92-96	2007-11	Bar.	92-96	2007-11	Bar.
Álava-Araba	20	35	% 72,3	690	1.278	% 85,2
Gipuzkoa	36	77	% 113,1	1.696	3.109	% 83,3
Bizkaia	26	78	% 205,1	651	3.879	% 496,2
Total	82	190		3.037	8.266	

Iturria: Eustat eta BBVA Research


Eredua guztiz bestelakoa da Gipuzkoan. Probintzia horretan, barnealdeko hotelen kopurua bikoitza bikoiztu baino gehiago egin den arren, eskainitako tokien kopurua % 83 handitu da. Beraz, hazkunde hori hotel txikiagoen eskutik gertatu da. Izan ere, batez besteko neurria 46tik 40ra txikitu da. Hotelak irekitzeko estrategiak, beraz, desberdinak dira lurralde horretan, hain turistikoak ez diren inguruetan ireki baitira, hiriko turismoari baino (Donostian bertan egin daiteke hori) baino landa izaerako turismoari begira gehiago, eta azken horrek establezimendu txikiagoak eskatzen ditu.

Planteatutako eraldaketa hori gertatu arren, ez dira aldaketa garrantzitsuak ikusi inguru eta establezimendu motaren arabera ostatu-gauen banaketan, eta alderdi horrek ez du ia inolako aldaketarik izan 1992tik. Euskadin hiriko turismoa da nagusi gaur egun ere, ostatu-gauen erdiak ia probintzietako hiriburu- eta 3 edo izar gehiagoko hoteletan izaten baitira. Gainera, kostaldeak ostatu-gau guztien % 10eko kuotari eusten dio. Beraz, barnealdeko udalerrietako establezimenduetako ostatu-gauen hazkundera (+6 p.p., guztien % 26ra iritsi arte), hiriburu- eta kategoriatxiki-eko hoteletako gauen kontura gertatu da; izan ere, 1992. urtean ostatu-gauen % 21 hartzen zuten, eta 2011n % 15era jaitsi da ehuneko hori. Aldaketa, beraz, hotel-eskaintzaren hazkundera gertatu da, baina, erdiguneko kokapenaren ordez, kalitate handiagoko kokapen metropolitarra garatu da.

Bestalde, Bizkaian neurri handiagoko hotelak ezarri izanak instalazio horiek modu eraginkorragoan erabiltzea ekarri du, eta establezimendu horien okupazio-mailaren bitartez beha daiteke hori. Hala, 2010. urtean, Bizkaian kokatutako establezimenduek (handiagoak dira) gainerako lurralde historikoetan kokatutakoek baino okupazio-maila handiagoa izan zuten, are Espainiako batez bestekoaren gainetik ere.

33. Grafikoa

Ostatu-gauak, establezimendu motaren arabera



Iturria: Eustat

6. Koadroa

Okupazio-maila (2010)


	Tokiena	Tokiena, asteburuan	Logelena
Araba	% 33,0	% 38,0	% 39,0
Bizkaia	% 38,5	% 41,5	% 43,4
Gipuzkoa	% 37,1	% 39,5	% 40,9
EAE	% 37,0	% 40,2	% 41,7
Espainia guztira	% 38,1	% 41,6	% 41,0

Iturria: INE. 2010eko datuak

Euskadiko turismoaren beste berezitasun bat, gaur egun arte, Estatutik iritsitako turisten pisu erlatibo handia da: Espainian bizi diren turismoaren ehunekoa atzerritarrena baino handiagoa da sistematikoki, eta horrek, bere aldetik, Euskadik turismo espainiarrean kuota txikiagoa izatea dakar. Dena den, turista atzerritarren sarreraren pisua 10-12 p.p. inguru handitu da, eta Euskadiko sarrera guztien herena da, izan ere, bidaiari espainiarren sarrerak bikoiztu egin diren bitartean, atzerritarrenak hirukoiztu egin dira. Frantzia da turismo atzerritarren merkatu nagusia, hurbiltasunaren ondorioz, eta handik datoz bisitarien erdiak. Baina Euskadiren kasuan, kontzentrazioa beste merkatu turistiko batzuetan baino askoz ere handiagoa da: Espainian, adibidez, Frantziatik iritsitako turistak sarreraren % 15 dira soilik, eta beste merkatu batzuek, ingelesak edo alemaniarrek, adibidez, Espainian ezarpen sendoa duten arren (bisitarien % 25 eta % 16, hurrenez hurren), askoz ere pisu txikiagoa dute Euskadin. Beraz, hazkunderako bide bat irekitzen du horrek, autonomia-erkidego hau turismo horretarako lotune bihurtzeko aukerak baliatuta (bereziki Erresuma Batuekin).

34. Grafikoa


Bidaiariaren sarrera eta atzerritarren ehunekoa



Iturria: Eustat

35. Grafikoa

Turista atzerritarrek EAEn, jatorriaren arabera (2010)




Iturria: Azterketa Turistikoaren Institutua (Frontur)

Jatorri atzerritarra duten merkatuetan hurbiltasuna garrantzitsua den arren (eta, zentzu horretan, turismo portugaldarraren pisua handia da), espainiar egoiliarren hoteletako egonaldietan, aldiz, jatorrizko merkatuen neurriak agintzen du. Hala, bada, Euskadira datozen turisten jatorriko bi autonomia-erkidego garrantzitsuenak Katalunia eta Madril dira. Hala ere, krisia hasi zenetik (lehenago ikusi dugunez, krisiak ez du aldaketa esanguratsurik eragin Euskadiko bisiten hazkunderitmoan) EAE bertako herritarrek dira Euskadiko hotelen sektoreko merkatu nagusia. Hortaz, bost urteko batez bestekoan (1992-1996 vs 2007-2011), EAE bertako herritarren turismoak 4 p.p. irabazi

ditu, eta Euskadiko ostatu-gauen % 22ra iritsi da; madrildarren turismoak 5 p.p. galdu ditu, % 25etik % 20ra igaroz; eta kataluniarren turismoak ere behera egin du apur bat, 2 p.p., turismo osoaren % 18 hartuz. Gaztela eta Leonek, Andaluziak eta Valentziak nahiko pisu egonkorra erakutsi dute, ostatu-gau guztien % 5 ingurukoa.

36. Grafikoa

Ostatu-gauen %, jatorriaren arabera



Iturria: Eustat


Hala ere, hurbiltasun geografikoa ere garrantzitsua da turismoan: Espainian zehar bidaiatzen duten turista nazionalen jatorriari buruzko INEren 2011ko datuen arabera, Euskadiz gain, Nafarroa, Aragoi, Kantabria, Asturias, Errioxa eta Gaztela eta Leon dira Euskadiko turismoari ekarpen gehien egiten diotenak turismo espainiarraren pisu osoarekiko. Eta hori errepikatu egiten da, gainera, hiru lurralde historikoetan. Aldiz, Katalunia, Espainiako turismoaren % 16,5en jatorria dena, turismoaren % 22 da Gipuzkoan; baina ez da % 16ra iristen Bizkaian, eta Araban ezta % 14ra ere.

Bisiten iraupena izan daiteke beste aurrerapen-puntu bat; alderdi horretan ez dira aldaketa esanguratsurik gertatu: batez besteko egonaldia Euskadin nahiko egonkorra izan da, 1,89 ostatu-gau inguru sarrerako. (1,87 egunekoa zen Guggenheim ireki aurreko bost urtekoan, eta, ondoren, 1,95 eguneko maximoak lortu dira, Espainiako gainerako lurraldeetako 3,1eko kopuruaren aurrean, IET-ATIren datuen arabera.

Dena den, merkatuak jatorriaren arabera aztertzen direnean, aldaketak ikusten dira berriro. Hala, bada, 2000. urtetik, atzeritarren egonaldiak Espainian bizi direnen herritarrenak baino apur bat luzeagoak dira.

37. Grafikoa

Batez besteko egonaldia, sarreraren arabera ponderatua



Fuente: Eustat eta BBVA Research

Hainbat arrazoi eman daiteke egonaldi labur samar horiek azaltzeko eta turismoak jarduera ekonomikoan duen pisu txikia justifikatzeko, nahiz eta jarduera ekonomikoa hobetzeko bideetako bat izan daitekeen. Lehen adierazi dugunez, oso hurbileko merkatuekiko mendekotasuna dugu, eta, bestalde. Beraz, merkatu berrien bilaketarekin batera, hori izan daiteke turismoa garatzeko bideetako bat.

Euskadiko turismoaren egituraketa berezia da, batetik, hein handian hiriko turismoan oinarritzen delako, eta, bestetik, lehiakortasunaren ikuspegitik, klima desabantaila erlatiboa delako eguzkia eta hondartza eskaintzen duten turismo helmuga tradizionalen aurrean; beraz, horrek guztiak turismoaren sektoreak Euskadin urtarokotasun desberdina izatea ekarri du: neguko hilabeteek (azarotik martxora) bisiten ehuneko handia hartzen dute (bisita guztien herena ia). Izan ere, atzerriarren sarrerak hirukoiztu egin dira hilabete horietan azken bost urteetan, eta sarrera guztiekiko 7 p.p irabazi ditu, hilabete horietako sarrera guztien ia laurdena izatera iritsi arte. Euskadira iritsitako turisten % 7k soilik zuen pakete turistikoa. Ehuneko hori laugarren txikiena da Espainiako autonomia erkidegoen artean, soilik Errioxa (% 4,6), Murtzia (% 4,9) eta Extremaduraren (% 5,1) gainetik; baina oso urruti dago Kataluniak eta Andaluziak dutenetik (% 20).

Egia esan, egonaldien batez bestekoetan gertatutako hazkunde txikiak eta atzerriko bisitarien handitzeak aldaketa txikia ekarri dio urtarokotasun horri, eta bisitarien kopuruak pisu pixka bat galdu du beste merkatu batzuetan behe-denboralditzat hartzen den garaian. Baina neguko denboraldian (azarotik martxora) pisu garrantzitsu horri eusteak esan nahi du Euskadiko turismoaren pizgarriak beste merkatu turistikoa batzuetan garai horretan eskaintzen direnen desberdinak direla, hots, hondartzako edo eskiatzeko turismoa eskaintzen dutenen desberdinak. Beraz, turismoa sustatzeko argudioak bultzatzea tresna estrategikoa da sektore hori hobetzeko. Izan ere, batez besteko gastuaren Euskadiko emaitzek erakusten dutenez, beharbada euskal ekonomiak ez dio probetxu ateratzen gastu turistikoa bultzatzeko ahalmen osoari. Turismo gastronomikoa garrantzi handia izan zezakeen arren, edo merkataritzan beste gastu batzuk egiteko aukera egon zitekeen arren, turista eta egun bakoitzeko batez besteko gastuari buruzko zifrek adierazten dutenez, autonomia-erkidego honetan bidaiari atzerriarrek egiten duten gastua hondartza-inguruetan egiten dutenaren antzekoa da, eta, aldiz, hiriko turismoko beste gune batzuetakoa (Madril, adibidez) baino txikiagoa.

Beraz, esparru horretako eskaintza hobetzea da Euskadin jarduera turistikoa duen garrantzia handitzeko bideetako bat, turismo kulturala eta gastronomiara edo merkataritzara zuzendutako bisitak bateratuz, hain zuzen ere. Gainera, jarduera horiek ez daude Euskadik Espainiako gainerako helmuga turistikoen aurrean duen desabantaila bakarraren menpe: eguraldia.

Azken batean, 90eko urteen amaieran argi ikusi zenez, jarduera armatuaren amaiera akuilu sendoa izan daiteke Euskadiko jarduera turistikoa bultzatzeko, eta are gehiago susta daiteke jarduera turistikoa ustiatzeko bide osagarriak irekiz gero: turistentzako jarduera berriak, turistak iristeko bide berriak, hala nola bidaia-antolatzaileek antolatutako turismoa, edo merkatu berriak, egungo turistak datozen herrialdeetakoak hazkunde ekonomiko handiagoak dituztenak.

7. Koadroa

Sarrerak azaroa-martxoa

	Sarrerak azaroa-martxoa				Sarrerak azaroa-martxoa		
	92-96	2007-11	Bar.		92-96	2007-11	Bar.
Estatua	253.798	529.182	% 108,5	Estatua	% 82,9	% 75,6	% -7,4
Atzerritarrak	52.751	171.083	% 224,3	Atzerritarrak	% 17,1	% 24,4	% 7,4
Guztira	306.549	700.265	% 128,4	Guztira	% 100	% 100	

Iturria: Eustat eta BBVA Research

8. Koadroa

Batez besteko gastua pertsonako eta eguneko (€-tan)

	Guztira 2009	Guztira 2010	Bar. 2010/2009
GUZTIRA	95,0	97,6	% 2,8
Madril	139,5	149,8	% 7,4
Aragoi	126,1	110,4	% -12,4
Balearrak	102,7	109,6	% 6,7
Gaztela-Mantxa	113,5	107,5	% -5,3
Asturias	83,3	103,1	% 23,7
Kanariak	103,8	99,1	% -4,5
Katalunia	97,1	98,1	% 1,0
Nafarroa	92,6	97,7	% 5,6
Euskadi	98,4	96,9	% -1,5
Gaztela eta Leon	90,7	95,3	% 5,1
Galizia	97,4	90,9	% -6,7
Andaluzia	81,6	89,7	% 9,9
Kantabria	89,3	88,6	% -0,8
Extremadura	80,9	77,2	% -4,6
Errioxa	69,5	71,1	% 2,3
Murtzia	68,8	70,7	% 2,8
Valentziako Erkidegoa	65,7	67,0	% 2,0

Iturria: IET-ATI Egatur

5. Autonomia-erkidegoen hezkuntza-jarduna⁵

Zein autonomia-erkidegok lortzen dituzte emaitzarik onenak hezkuntzan? De la Fuente eta Gundín lanean (2012)⁶, galdera horri erantzuteko baliagarri izan daitezkeen zenbait adierazle garatzen dira argiki bereizitako jardun-irizpideen bidez; berorietan, prozesuarekin lotutako alderdiak (hezkuntza-zikloetako sarbidea, arrakasta eta iraupena) nahiz ezaguera barneratzearen ikuspegitik neurtzen diren emaitzak biltzen dira.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-ziklo bakoitzerako lantzen dira proposatzen diren adierazleak, 2008-2009 ikasturterako Hezkuntza Ministerioak argitaratutako datuak erabiliz; eta elkarrekin batera daitezke, hezkuntza-mailen edo jardunaren neurketa-irizpideen arabera laburpen-adierazle sintetikoak osatzeko, nahiz interesgarriak diren dimentsio guztiak bateratuz emaitzei buruzko adierazle globalak osatzeko. Egoera desberdinei aurre egin behar dieten hezkuntza-sistemen artean alderaketa baliagarriak egin ahal izateko, sintesi-adierazle batzuetarako indize araztuak ere landu dira, kanpoko bi faktoreren eragina zehaztu ondoren, eskola-jardunaren gainean eragin nabarmena izan baitezakete: hezkuntzara zuzentzen diren baliabideen bolumena, eta ikasleen familien hezkuntza-maila, biztanle helduen batez besteko prestakuntza-mailarekiko.

Hezkuntza-jardunaren adierazleak eraikitzea

Hezkuntza-sistemek betetzen duten zeregina neurtzea ez da lan erraza, sistema horiek hainbat helburu bete nahi baitituzte aldi berean eta, batzuetan bederen, horietako batzuk kontraesankorrak izan baitaitezke elkarrekiko. Oso sakonera jo gabe ere, nahiko argi dago, hezkuntza-sistema batean lortu nahi diren helburuen artean, hezkuntza-maila bakoitzean ahalik eta pertsona gehienek sarbidea izatea lortu nahi litzatekeela (horren onura ahalik eta jende gehienak lortzea), eta denbora-tarte zehatz batean osatu ahal izatea, curriculumean jasotzen diren ezagutzak eta gaitasunak barneratu ondoren. Hortaz, gutxienez hezkuntza-jardunaren barnean interesgarriak izan daitezkeen lau dimentsio edo alderdi bereiz daitezke, laburtzeko, hitz hauen bidez adieraziko ditugunak: *sarbidea*, *arrakasta*, *iraupena* eta *gaitasunak*.

9. Koadroa

Hezkuntza-jardunaren oinarrizko adierazleak

1. Prozesu-adierazleak

a. Sarbidea: biztanleria guztitik zer zati sartzen da hezkuntza-ziklo bakoitzean?

b. Arrakasta: amaitzeko zer probabilitate dute?

c. Iraupena: zenbat denbora behar dute amaitzeko?

d. Eraginkortasuna: gainditutako ikasturte bakoitzeko batez besteko urteak.

2. Balio erantsiaren edo gaitasunen adierazlea

Zenbat dakite ikasleek?

Iturria: egileak

Espainiako eskualdeetako hezkuntza-sistemen funtzionamendua balioesteko erabil daitezkeen zenbait adierazle landu dituzte De la Fuentek eta Gundínek (D&G), lau irizpide horien ikuspegitik. Hezkuntza-maila gehienetarako, *sarbidea* deritzon adierazlea sarbideari dagokion tasa gordina da, eta honela definitzen da: hezkuntza-ziklo zehatz batean hasten diren ikasleen (berorien adina alde batera utzita) eta teorian eta egoera normaletan maila horri dagokion adineko biztanle guztien arteko zatidura⁷. Hezkuntza-maila bateko arrakasta –bertan sarbidea izatea ezinbesteko baldintza

5: Angel de la Fuente. Análisis Económico del Instituto (CSIC).

6: A. de la Fuente eta M. Gundín (2012). "Indicadores de desempeño educativo regional: metodología y resultados para los cursos 2005-06 a 2008-09." Mimeo, Análisis Económico del Instituto (CSIC).

7: Haur Hezkuntza eta Unibertsitateko Hezkuntza salbuespen dira, nahiz eta horiei dagozkien sarbide-tasak ere ikertuko diren. Lehenengoaren kasuan, bi urteko eta hiru urteko haurren batez besteko eskolatzetasa garbiarekin lan egiten haur da, adin hortako populazioan eskolaratuta dagoen zatikiarekin. Unibertsitateko hezkuntzarako sarbideari dagokionez (unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemen zereginean garrantzi handiko dimentsioa da hori), unibertsitateko sarbide probak gainditzatzen dituzten biztanleen tasa gordinaren bidez neurtzen da, eta, horrela, unibertsitateko ikasleen mugikortasun handiarekin lotutako arazoak saihesten dira, jatorrizko eskualdearen arabera adierazle bat kalkulatzat, gure xedeetarako horixe baita eraginkorra.

da horretarako-, urteko batez besteko biziraupen-tasaren bidez neurtzen da. Aurrez aipatu dugun sarbide-tasa eta graduazio-tasa gordina erabiliz osatzen da aldagai hori, eta maila jakin bat arrakastaz amaitzen duten edozein adinetako ikasleen eta teoriar maila horri dagokion adineko biztanle guztien arteko zatidura kalkulatu definitzen da. *Iraupena*, berriz, maila bakoitzean ikasturte bat egiteko batez beste behar duten denboraren alderantzizkoaren bidez neurtzen da, hau da, *ikasten ari diren urte bakoitzeko gainditutako ikasturteen* batez besteko zenbakiaren alderantzizkoa zehaztuz, sistemaren barnean jarraitzen duten pertsonen kasuan. Biziraupen-tasatik eta errepikatze-tasatik abiatuta kalkulatu da aldagai hau, eta errepikatze-tasa horretara hurbiltzeko, dagokion ikasturte horretan errepikatzen ari diren ikasle guztien eta mailako ikasle guztien arteko zatidura ateratzen da, betiere, errepikatzen ari direnek lehen ahaleginean gainditzen dutela pentsatuz eta hezkuntza ziklo bat osatu gabe ikasketak bertan behera uzten dituzten guztiek, euren lehen ahalegina zutela suposatuz.

Ikasten ari diren urte bakoitzeko gainditutako ikasturteen kopurua ere kalkulatu da, antzeko prozedura bat erabiliz. Arrakasta eta iraupena bateratzen dituen adierazlea da aldagai hori, eta hezkuntza-sistemak bere *input* nagusia (maila zehatz batean sartzen diren ikasleen denbora) *output* gordin (gainditutako ikasturteak) bihurtzeko zer-nolako *eraginkortasuna* duen neurtuko luke. Oso interesgarria da ikustea, hezkuntzako inbertsioaren errentagarritasuna kalkulatzeko orduan, funtsezko lekua betetzen duela adierazle horrek, berorren zuzeneko kostuak nahiz aukera-kostuak ikasleek eskolatuta pasatzen duten denboraren arabera baitira; eta, aldi berean, arrazoizkoa dirudi pentsatzea berorren onurak arrakastaz egiten diren ikasturteen kopuruarekiko proportzionalak izango direla.

Orain arte definitutako adierazleak *hezkuntza-prozesuaren* mekanikaren hainbat alderditan zentratzen dira: biztanleriaren zer zatiki sartzen den hezkuntza-ziklo bakoitzean, amaitzeko zer probabilitate duten, edota zenbat denboran amaituko duten. Hezkuntza-sistemaren zereginaren hiru dimentsio horiei laugarrena erantsi behar zaie, funtsezkoa hori ere, eta berorren emaitzekin edo ezagutzaren ikuspegitik dakarren balio erantsiarekin du zerikusia: zenbat ikasi dute ikasleek ikasgeletan?

Hezkuntza-ziklo bakoitzeko ikasleen gaitasunak neurtzeko, estatuko lurralde osorako homogeneousko izango diren ebaluazio-proben emaitzak behar ditugu. Zoritxarrez, herrialde honetan horrelako ezaugarriekiko ebaluazio gutxi egin dira. 2008-2009 ikasturterako erabil ditzakegun bakarrak bi hauek dira: batetik, PISAren oinarritzko gaitasunen probak, 15 urteko ikasleei zuzentzen zaizkienak, OCDEk diseinatu eta antolatutakoak, eta 2009ko edizioan, hain zuzen, 17 autonomia-erkidegoetatik 14ren parte-hartzea izan dutenak ordezkartzen bidez; eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako 2009ko diagnostiko-ebaluazio orokorra. Bi kasuetan, eskualdeen batez besteko emaitzak lantzen dira proba bakoitzean aztergai hartutako eremuetan (hizkuntza, matematika eta natura-zientziak, eta baita gizarte-zientzien atala ere, diagnostiko-ebaluazioaren kasuan).

Aurreko paragrafoetan deskribatutako aldagaiak estandarizatu egin dira, eta batez besteko nazionalaren bidez normalizatu dira, berorri 100 balioa emanda; eta elkarrekin konbinatu dira, eskualde bakoitzeko hezkuntza-emaitzak laburtuko dituzten zenbat adierazle sintetiko eraikitzeko hezkuntza-ziklo bakoitzean edo jardunaren dimentsio interesgarri bakoitzaren arabera, eta jardun-adierazle globalak ere osatzeko. Hezkuntza-zikloetako batez bestekoak kalkulatzeko orduan, bakoitzaren iraupen teorikoaren proportzioan ponderatuko dira horiek, eta, bide horretatik, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren "batez besteko ikasturteari" dagokion emaitza modura interpretatu ahal izango da emaitza. Jardun-irizpideei dagozkien batez bestekoak kalkulatzeko, prozesuko hiru irizpideei (sarbidea, arrakasta eta iraupena) pisu erlatibo bera esleitzen zaie, eta gaitasunen adierazleari prozesu-adierazleen multzoari dagokion pisu bera esleitzen zaio.

Hezkuntza-jardun gordinaren indizeak

Eskualdeko hezkuntza-jardun gordinaren analisiaren emaitza nagusiak 10. koadroan eta 11. ean laburtu dira. 10. koadroan, prozesuko jardun-adierazleen batez bestekoak ageri dira, hezkuntza-mailen arabera; maila bakoitzean, sarbide-, arrakasta- eta iraupen-indizeen artean batez bestekoak atereaz lortu dira, gaitasunen adierazlea alde batera utzita; izan ere, adierazle hori soilik Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskura daiteke. Azkenean, hezkuntza-mailen arteko batez bestekoak (bakoitzaren iraupenaren arabera ponderatuta) emango digu prozesuko jardun-adierazle globala (*G1*), koadroaren azken zutabean erakusten dena eta eskualdeak ordenatzeko erabili dena, hain zuzen.

11. koadroan, oinarritzko adierazleen batez bestekoak hezkuntza-zikloetan bereizita kalkulatu dira, jardunarekin lotutako alderdiei buruzko laburpen-adierazleak lortzeko; kasu honetan, gaitasunen adierazlea barnean hartu da, soilik Lehen Hezkuntzako eta DBHko emaitzetan oinarrituta, lehen ere esan dugunez, horiexek bakarrik daudelako eskuragarri. Indize horiek batu egin dira aldi berean, koadroaren azken aurreko zutabearen ageri den jardun-adierazle globala (G3) lortzeko; sarbide-, arrakasta- eta iraupen-adierazleen eta gaitasunen adierazlearen arteko batez besteko ponderatua atereaz kalkulatu da berori (lehenengo hirurek 1/6eko pisua dute bakoitzak, eta gaitasunen adierazleak, berriz, 1/2ekoa). Koadroko azken zutabeak, berriz, lehentxeago aipatu dugun eraginkortasun-adierazlea erakusten du (arrakasta eta iraupena).

10. Koadroa

**Prozesuko laburpen-adierazleak hezkuntza-mailen arabera
eta prozesuko jardun-adierazle globala (G1) 2008-2009 ikasturtea**

	LH	DBH	Batxilergoa	LH 1	LH 2	G1
EAE	100,3	103,8	114,8	104,9	125,3	110,2
Asturias	100,1	103,5	111,5	107,2	110,5	104,6
Galizia	100,2	101,0	105,3	113,4	115,1	104,1
Katalunia	100,5	101,8	99,8	109,4	109,6	103,3
Kantabria	100,3	102,3	101,8	102,6	102,5	102,3
Aragoi	99,4	100,3	101,7	106,8	101,0	102,0
Nafarroa	100,3	102,6	104,4	97,8	96,3	101,4
Gaztela eta Leon	99,4	100,7	103,9	99,8	100,0	100,5
Madril	100,0	100,8	105,0	91,0	98,0	100,1
Errioxa	100,3	99,9	98,3	103,3	98,6	99,1
Valentzia	100,0	98,2	97,3	103,2	100,1	98,9
Kanariak	99,9	99,6	98,7	101,6	96,3	98,3
Murtzia	100,0	99,6	98,6	94,2	90,7	97,4
Andaluzia	99,9	98,1	94,2	96,2	92,5	97,0
Extremadura	100,0	100,4	100,0	94,1	88,4	96,7
G.-Mantxa	99,7	98,9	98,9	95,9	88,2	96,3
Balearrak	99,4	98,3	92,1	93,1	84,4	93,1
Espainia	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Desb. estandarra	0,3	1,7	5,5	6,1	10,2	3,9

Oharra: G1 kalkulatzera, Haur Hezkuntzako eta Unibertsitateko sarbide-datuak ere erabili dira.
Iturria: egileak

11. Koadroa

jardunaren laburpen-adierazleak irizpideen arabera
eta prozesuko jardun-adierazle globala eta ezagueri dagokiena (G3) 2008-2009 ikasturtea

	Sarbidea	Arrakasta	Iraupena	Gaitasunak	G3	Eraginkortasuna
EAE	119,6	102,7	104,9	105,2	107,1	107,0
Asturias	108,7	101,1	102,5	104,9	104,5	103,5
Galizia	104,5	99,2	101,2	104,9	103,3	100,1
Katalunia	103,0	99,3	98,4	106,1	103,2	98,0
Kantabria	106,6	97,3	101,4	103,5	102,7	98,9
Aragoi	98,8	98,3	100,2	106,1	102,6	98,9
Nafarroa	99,0	100,6	101,1	104,9	102,5	101,5
Gaztela eta Leon	105,4	103,3	103,1	101,1	102,5	105,9
Madril	99,7	102,6	102,4	102,8	102,2	104,7
Errioxa	107,1	99,3	102,1	100,6	101,7	101,4
Valentzia	92,5	98,6	99,3	101,7	99,2	98,0
Kanariak	93,5	99,1	101,3	99,9	98,9	100,3
Murtzia	92,1	99,7	100,0	100,0	98,7	99,8
Andaluzia	94,5	101,7	95,9	97,7	97,5	97,6
Extremadura	98,0	98,5	100,4	94,5	96,7	99,0
G.-Mantxa	98,0	96,9	99,9	93,9	96,1	97,1
Balearrak	85,8	97,3	99,0	94,9	94,5	96,7
Espainia	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Desb. estandarra	7,7	1,9	2,0	4,0	3,3	3,0

Iturria: egileak

10. eta 11. koadroetako azken lerroan, mailen eta jardun-irizpideen arabera eman diren batez besteko emaitza-indizeen desbideratze estandarra ageri da. Mailen arabeko koadroan, jardun-adierazlearen barreiadura oso txikia da Lehen Hezkuntzan (soilik eskualdeen arteko alde txikiak adierazten ditu errepikatze-tasan), eta, hezkuntza-mailetan gora egiten dugun neurrian, handitu egiten da; jada hor aldeak handiagoak dira jardunaren hainbat dimentsiotan. Azken horiei erreparatzen badiugu, ikusiko dugu eskualdeen arteko aldeak handiak direla sarbide-tasan (irizpide horren arabera ondoen eta okerren kokatutako eskualdeen artean, 34 puntuko tartea dago); eta alde horiek pixka bat txikiagoak dira gaitasunen mailan eta, bereziki, biziraupen-tasetan eta ikasketen batez besteko iraupenean, eskualdeen artean nahiko alde txikiak baitaude.

Hezkuntza-mailei eta jardunaren alderdi desberdinei dagozkien indizeen arteko korrelazioa positiboa da oro har⁸, nahiz eta ez den beti oso altua. Beraz, batez bestekoetan ondo dabilzan eskualdeek emaitza onak izan ohi dituzte maila eta dimentsio guztietan, eta, beraz, jarduna aztertzean laburpen-indizeen arabera zehazten diren sailkapenak ez dira oso desberdinak elkarrekiko. Oro har, Espainia iparraldeko autonomia-erkidegoak daude sailkapenaren aurreneko tokietan, EAE buru dutela, eta hegoaldeko eta hego-ekialdeko eskualdeak daude azken tokietan.

Jardun-adierazle araztuak


Eskualdeetako hezkuntza-sistemen emaitzetan zuzen-zuzenean eragiten dute kanpoko zenbait faktorek; berorien zeregina aztertzerakoan, horien eragina zokoratzea komeniko litzateke, gure arreta bakoitzaren balio erantsian jartzeko. Horietako faktore bat hezkuntzara zuzentzen diren baliabideen zenbatekoa da. 38. grafikoan ikus daitekeenez, alde nabarmenak daude eskualdeen artean, ikasle bakoitzeko gastuaren atalean. Banaketa horren bi muturren arteko aldea -hurrenez hurren, erkidego foralak daude mutur batean, eta Andaluzia eta Murtzia bestean-, 60 puntu portzentualetik gorakoa da, eta, ikasleko eta urteko, 2.700 euro inguru adierazten du horrek. Gai honi buruzko lanek diote

8: Salbuespen da Lehen Hezkuntza, prozesu-adierazleak erlazio negatiboa baitu gainerakoekin. Beraz, Lehen Hezkuntzako ikasleak errepikatzerantz maiz bidaltzeko joera duten eskualdeek, gero, prozesuko emaitza hobeak lortzen dituzte goragoko mailetan. Errepikatzeen kopurua ikasketen exijentzia-mailaren adierazletzat hartzen badugu, emaitzak ez dirudi zentzugabea; baina, Lehen Hezkuntzako adierazlearen oso alde txikiak daudela kontuan hartuta, zaila da erabakitzea zenbateraino fida gaitzekin horretaz.

gastu handiagoak ez dakartzala nahitaez hezkuntza-emaizta hobeak; baina bitartekoetan horrelako aldeak egoteak, halabeharrez pentsarazten digu ez ote duen eragingo hezkuntzaren kalitatean; esate baterako, zailtasunak dituzten ikasleei eskaini dakiekeen laguntza-mailan.

Zalantzarik gabe hezkuntza-jardunari eragiten dion beste faktore-multzo bat ikasleek beren etxeetan dituzten baldintza sozioekonomiko eta kulturelekin lotuta dago. Erantsitako faktore horien adierazle gordin gisa, D&G egileek helduen prestakuntza-maila erabiltzen dute, eta, horretarako, 24 urtetik gorako biztanleek batez beste prestakuntzan pasatu dituzten urteak zenbatzen dituzte de la Fuente eta Doménechi (2012) jarraiki.

38. Grafikoa
Ikasleko eta urteko gastua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, 2005



Oharra: gastu publiko eta pribatua, unibertsitateaz kanpoko ikasleko (itunpeko ikastetxeetan eta pribatuetan eskolatutakoak barnean hartuta). Magnitude hau bereiz kalkulatzeko da eskualde bakoitzean, Lehen Hezkuntzako ikasleak eta Haur Hezkuntzakoak hartuz batetik, eta Bigarren Hezkuntzakoak eta Lanbide Heziketakakoak, bestetik. Ondoren, bi aldagai horien batez besteko ponderatua kalkulatzeko da, Espainia bere osotasunean hartuta, unibertsitateaz kanpoko ikasleen kopuru osoarekiko maila bakoitzak duen pisua ponderatuz. Datuak 2005. urteari dagozkio, urte horri baitagokio hezkuntzako gastu pribatuari buruzko informazio xehatua. Iturria: de la Fuente eta Boscá (2011).

12. Koadroa
**Jardun-adierazle globala,
kanpoko faktoreen inpaktua zuzenduta eta zuzendu gabe, eta faktoreon ekarpena**


	G3 araztua eta bireskalatua	gastuaren eragina	hezkuntzaren eragina 25+	G3 gordina
Andaluzia	100,0	-1,2	-1,3	97,5
Aragoi	102,7	-0,4	1,0	103,3
Asturias	102,6	1,4	0,5	104,5
Balearrak	93,7	0,7	0,0	94,5
Kanariak	96,4	0,1	-0,4	96,1
Kantabria	101,3	0,5	0,9	102,7
Gaztela eta Leon	102,5	1,2	-0,5	103,2
G.-Mantxa	100,8	0,1	-1,7	99,2
Katalunia	100,8	0,9	0,0	101,7
Valentzia	96,7	0,0	0,1	96,7
Extremadura	100,8	-0,1	-2,0	98,7
Galizia	102,8	0,2	-0,4	102,5
Madril	99,9	-0,6	3,3	102,5
Murtzia	101,4	-1,3	-1,2	98,9
Nafarroa	98,1	2,8	1,2	102,2
EAE	101,5	3,7	1,9	107,1
Errioxa	101,5	0,3	0,8	102,6
Espainia	100,0	0,0	0,0	100,0

Iturria: egileak

D&G egileek ekonometriaren ikuspegitik balioesten dute helduen gastu- eta prestakuntza-mailek eskualdeko jardun gordinari egiten dioten ekarpena, eta emaitza horiek erabiltzen dituzte aldagai horien inpaktuaren adierazle araztuak eraikitzeko; horrela, aurreko atalean aurkeztutako adierazle gordinek baino irudi zehatzagoa ematen dute aldagai horiek eskualdeetako eskola-sistemen balio erantsiaz.

Jardun-adierazle gordin globala (G3) deskonposatuta adierazten du 12. koadroak, hiru faktoreen batura bidez: jardun-adierazle araztua, eta kanpoko aldagaien ekarpen estimatua. Koadroaren azterketak emaitza interesgarriak islatzen ditu. Esate baterako, Andaluzia estatuko batez bestekoan legoke, jardun-adierazle global araztuaren kasuan. Hala ere, bai berorren gastu-maila txikiak eta bai bertako helduen hezkuntza-maila txikiak emaitzei beherantz eragiten diete, eta, horren ondorioz, eskualdearen jardun-indize gordin estatuko batez bestekoa baino 2,5 puntu txikiagoa da. Bestaldeko muturrean, berriz, zera dugu: euskal hezkuntza-sistemaren inguruabar onuragarriak azaltzen dituzte eskualdea Espainiako batez bestekoaren gainetik kokarazten duten 7,1 puntuetatik 5,6. Kanpoko faktoreen eragina aintzat hartuta zuzendu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoa hezkuntza-jardunaren sailkapen globalean lehen tokitik bosgarrenera doa. Errioxarekin berdinduta eta Galiziaren, Aragoiren, Asturiasen eta Gaztela eta Leonen atzetik. 39. grafikoak jardun-adierazle globalaren balio gordinak eta araztuak konparatzen ditu, eskualdez eskualde. Diagonalaren eta eskualde bakoitzaren posizioa zehazten duen puntuaren arteko distantzia bertikalak aipatutako kanpo-faktoreen multzoaren eraginagatik jardun-adierazlean dagokion zuzenketa adierazten du, eta horren berri ematen da gezien bidez, hain zuzen, Andaluziaren eta EAEn kasuetan.

39. Grafikoa

Jardun-adierazle globala, gordina eta araztua

Iturria: egileak

39. grafikoaren azterketak hauxe erakusten digu: oro har, estatuko ipar-mendebaldeko eskualdeek hezkuntza-emaitza hobeak dituzte hego-ekialdekoek baino, eta uharteak eta Valentzia nabarmentzen dira jardun hori okerren bete dutenen artean. Hala ere, kanpoko faktoreen ondorioz egin beharreko zuzenketak murriztu egiten du jardun-indizeen barreiadura hori, eta ondorio deigarriak ere agerrarazten ditu zenbait kasutan. Lehen aipatu ditugunei, hots, Andaluziari eta Euskal Autonomia Erkidegoari, beste kasu batzuk erantsi beharko genizkieke, Murtzia, Extremadura eta Gaztela-Mantxa, zehazki, zuzenketarekin nabarmen hobetzen baitira; eta, aldiz, Asturiasen, Kantabrian, Madrilen eta, bereziki, Nafarroan, justu alderantzizkoa gertatzen da.

Azkenik, merezi du hau nabarmentzea: irizpideen arabera jardun-indizeen arteko korrelazioek (ikusi jatorrizko azterlana balioak zehatz-mehatz ezagutzeko) positiboak izaten jarraitzen dute, eskualdeetako hezkuntza-sistemak "kanpoko baldintza berdintsuetan" kokatzeko gastu-bolumena eta familien hezkuntza-maila kontrolatu ondoren ere. Emaitza hori interesgarria da, korrelazio horiek negatiboak izango zirela espero baitzitekeen, eskualdeak modu eraginkorrean arituko zirela pentsatuta; izan ere, horrelako egoeretan, jardunaren dimentsioetako batean hobekuntzaren bat izateko, nahitaezkoa litzateke beste bat kaltetzea. Bide beretik, espero zitekeen hezkuntza-ziklo jakin batean biztanle gehieneko sarrera lukeen eskualdeak, gero, errepikatze- edo abandonu-tasa handiagoa izatea, edo emaitza okerragoak izatea gaitasun-probetan, zailtasunak dituzten ikasleen kopuru handiagoa izango zukeenez. Modu bertsuan, exijentzia-maila handiagoak gaitasunen adierazlea hobetzeko joera edota abandonu- eta errepikatze-tasa handiagoak islatu beharko litzuke.

D&G egileen balioespenek, ordea, erakutsi dute ez dela horrela gertatzen. Aitzitik, jende gehien eskolatzea lortzen duten eskualdeek, batez beste, errepikatze- eta abandonu-tasa txikiagoak dituzte, eta gaitasun-maila hobeak, baita baliabideetan eta helduen hezkuntza-mailan dauden

desberdintasunen eraginak kendutakoan ere. Emaita horrek iradokitzen du eskualde guztiak ez direla aritzen eraginkortasunaren mugan; beraz, horietako batzuetan, badago beste ezeri kalte egin beharrik gabe jardunaren zenbait dimentsio hobetzeko tartea.

Euskadiren egoera

13. koadroak Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera laburbiltzen du, 2008-2009 ikasturterako D&G egileek kalkulaturako adierazleen ikuspegitik. Atal nagusian, emaitza gordinen oinarritzko adierazleak biltzen dira, jardun-irizpideen konbinazioetarako eta beharrezko informazioa eskaintzen duten hezkuntza-mailetarako. Adierazle horiei, [5] zutabean, maila bakoitzerako prozesuko jardun-adierazle laburtua eta, [7] zutabean, prozesuko jardun-adierazle globala eta gaitasunena –halakorik eraiki daitekeen mailetan– erantsi zaie. [7] zutabean adierazten den mailen araberrako sailkapena maila bakoitzerako eskuragarri dugun adierazle osoenean oinarritzen da, hau da, [7] zutabean, eta, halakorik ez dagoenean, [5] zutabean.

Koadroko azken bi lerroetan, jardunaren laburpen-adierazleak ageri dira, jardun-irizpideen arabera, eta horri dagokion sailkapena; eta baita jardun-adierazle globala eta berorri dagokion sailkapena ere, behealdeko eskuin ertzean beltzez adierazita. Laburpen-adierazle horietarako, indize bakoitzaren balio gordina (*b*) nahiz balio araztua (*d*) erakutsi dira, *b/d* formatuko barra batez bereizita.

13. Koadroa

Hezkuntza-jardunaren adierazleak EAEn, 2008-2009 ikasturtea

	[1] Sarbidea	[2] Arrakasta	[3] Iraupena	[4] Prozesuko labur.	[5] Ezaguerak	[6] Adierazle globala mailaka	[7] Sailkapena mailaka
a. Lehen Hezk.	100,0	100,0	100,9	100,3	106,5	103,4	2-3
b. DBH	100,0	104,3	107,1	103,8	103,2	103,5	1
c. Batx.	132,2	104,3	107,5	114,8			1
d. LH 1	100,9	104,7	109,1	104,9			5
e. LH 2	166,5	103,4	105,9	125,3			1
f. Globala	119,6/104,9	102,7/100,3	104,9/100,9		105,2/102,1	107,1/101,5	
g. Irizpide-sail.	1/2	2/6	1/6		1/7-8	1/5-6	

Iturria: egileak

Euskadik emaitza bikainak erakusten ditu hezkuntzan, emaitza horiek adierazle gordinetan neurtzen direnean. Jardun-adierazle partzialetan ere, ez dago bakar bat estatuko batez bestekoaren azpitik, eta horietako askoren balioa batez besteko horren oso gainetik dago. Horren guztiaren ondorioz, eskualdea sailkapenaren lehen tokian kokatzen da bost hezkuntza-mailetatik hirutan (DBH, Batxilergoa eta LH2), eta kontuan hartutako lau jardun-dimentsioetatik hirutan, nahiz jardun-adierazle globalaren barnean. Dena den, lehen ere adierazi dugunez, emaitza on horiek, neurri batean, kanpoko faktoreei zor zaizkie, Euskadi baita unibertsitateaz kanpoko hezkuntzara baliabide gehien zuzentzen dituen autonomia-erkidegoa, eta bertako biztanle helduen hezkuntza-maila Espainiako batez bestekotik gora kokatzen baita argi eta garbi. Faktore horien eragin positiboa kenduta ere, Euskadik banaketa horretako goiko partean jarraitzen du, baina adierazle gordinak iradokitzen dutena baino estatuko batez bestekotik askoz ere gertuago. Aipatu faktoreez araztutako adierazleak hartuz gero, autonomia-erkidegoa bosgarren lekuan kokatzen da, seigarrenarekin parekatuta, jardun-adierazle globalean, eta zazpigarren eta zortzigarren postuen artean, gaitasunaren indizeari erreparatzen badiogu, nahiz eta bigarren postuari eusten dion sarbide-adierazleari dagokionez.

Erreferentziak

De la Fuente, A. eta J. E. Boscá (2011). Gasto educativo por regiones y niveles en 2005. Mimeo, Análisi Ekonomikorako Institutua, CSIC.

De la Fuente, A. eta R. Doménech (2012). "Series regionales del nivel educativo de la población: 1960-2011." Mimeo, Análisi Ekonomikorako Institutua, CSIC.

6. Taulak

14. Koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2009	2010	2011	2012	2013
Jarduera					
BPG erreala	-3,7	-0,1	0,7	-1,3	0,6
Kontsumo pribatua	-4,3	0,8	-0,1	-2,0	-0,9
Kontsumo publikoa	3,8	0,2	-2,2	-3,1	-1,8
Kapital-eraketa gordina	-16,4	-6,0	-5,2	-6,2	-1,9
Ekipo-ondasunak eta beste produktu batzuk	-22,6	5,5	1,5	-5,2	1,9
Eraikuntza	-15,4	-10,1	-8,1	-7,3	-4,0
Etxebizitza	-22,0	-9,8	-4,9	-6,5	-1,5
Barne-eskaria (hazkundeari egindako ekarpenak)	-6,5	-1,0	-1,8	-3,2	-1,3
Esportazioak	-10,2	13,5	9,1	1,6	8,2
Inportazioak	-16,9	8,9	-0,1	-4,8	2,1
Kanpo-eskaria (hazkundeari egindako ekarpenak)	2,8	0,9	2,5	1,9	1,9
BPG nominala	-3,7	0,3	2,3	0,1	1,6
(Mila miloi euro)	1047,8	1051,3	1073,8	1076,0	1093,4
Lan-merkatua					
Enplegua, BAI/EPA	-6,8	-2,3	-1,9	-4,2	-1,9
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	18,0	20,1	21,6	24,4	24,6
Hiruhileko Kontabilitate Nazionaleko (CNTR) enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-6,4	-2,6	-2,0	-3,8	-1,9
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	2,7	2,6	2,7	2,5	2,5
Prezioak eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	-0,3	1,8	3,2	1,2	1,1
BPGren deflatoea	0,1	0,4	1,4	1,4	1,0
Kontsumo pribatuaren deflatoea	-1,2	2,4	1,8	1,4	1,0
Soldatapeko bakoitzeko ordainsaria	4,3	0,0	0,8	2,8	3,9
Unitateko lan-kostua	1,6	-2,6	-1,9	0,3	1,4
Kanpo-sektorea					
Kontu korrante Balantza (BPGren %)	-5,2	-4,6	-3,7	-3,5	-1,1
Sektore publikoa					
Zorra (BPGren %)	53,6	60,7	68,5	72,5	74,4
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)	-11,2	-9,3	-8,5	-5,3	-3,0
Familiak					
Errenta erabilgarri nominala	0,9	-2,4	0,0	-1,5	0,8
Aurrezki-tasa (errenta nominalaren %)	18,5	13,9	11,1	10,2	10,9

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31
Iturria: BBVA Research, erakunde ofizialetan oinarrituta

15. Koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)

	2009	2010	2011	2012	2013
BPG erreal	-4,2	1,8	1,5	-0,5	1,0
Kontsumo pribatua	-1,2	0,8	0,2	-0,2	0,8
Kontsumo publikoa	2,6	0,5	0,1	-0,4	0,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	-12,0	-0,7	1,6	-2,6	1,5
Ekipoa, makineria eta landatutako aktiboak	-15,5	4,8	4,5	-2,6	2,2
Ekipoa eta makineria	-17,7	4,2	5,1	-1,9	2,3
Eraikuntza	-9,5	-4,3	-0,4	-3,0	1,0
Etxebizitza	-11,7	-3,3	1,9	-1,0	1,2
Beste eraikin eta eraikuntza batzuk	-7,0	-5,4	-2,9	-5,2	0,7
Izakinen aldaketa (hazkundeari egindako ekarpena)	-0,8	0,5	0,0	0,0	0,0
Barne-eskaria (hazkundeari egindako ekarpena)	-3,5	1,0	0,5	-0,7	0,9
Esportazioak	-12,8	11,1	6,3	2,6	3,3
Inportazioak	-11,6	9,4	4,0	2,1	3,1
Kanpo-eskaria (hazkundeari egindako ekarpena)	-0,7	0,8	1,0	0,2	0,1
Pro-memoria					
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-3,7	2,1	1,5	-0,5	1,0
BPG, eraikuntza gabe	-3,5	2,6	1,7	-0,2	1,0
Enplegua guztira (BAI/EPA)	-1,8	-0,5	0,1	-0,2	0,3
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	9,6	10,1	10,2	10,6	10,5
Kontu korronteko saldoa (BPGren %)	-0,1	0,1	0,0	-0,1	0,4
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)	-6,4	-6,2	-4,2	-3,0	-2,0
KPI (aldiaren batez bestekoa)	0,3	1,6	2,7	1,8	1,3

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31
Iturria: BBVA Research, erakunde ofizialetan oinarrituta

16. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(Urteko tasak, %)	2009	2010	2011	2012	2013
Estatu Batuak	-3,5	3,0	1,7	2,3	2,2
EDB	-4,2	1,8	1,6	-0,5	1,0
Alemania	-5,1	3,6	3,0	0,5	1,7
Frantzia	-2,6	1,4	1,6	0,2	1,4
Italia	-5,1	1,4	0,4	-1,5	0,2
Espainia	-3,7	-0,1	0,7	-1,3	0,6
Erresuma Batua	-4,4	2,1	0,9	0,5	1,4
Latinoamerika*	-0,6	6,6	4,5	3,7	4,1
Mexiko	-6,1	5,4	3,8	3,3	2,9
EAGLES **	4,0	8,4	6,7	5,9	6,5
Turkia	-4,9	9,2	8,5	1,9	4,2
Asia Ozeano Barea	4,2	8,1	5,8	5,8	6,1
Txina	9,2	10,4	9,2	8,3	8,7
Asia (Txina gabe)	1,0	6,7	3,5	4,2	4,4
Mundua	-0,6	5,1	3,9	3,5	4,1

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Peru, Venezuela.

** Brasil, Txina, Egipto, India, Indonesia, Korea, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia.

Iturria: BBVA Research

17. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)

	2009	2010	2011	2012	2013
Estatu Batuak	3,2	3,2	2,8	2,3	2,7
EDB	3,3	2,8	2,6	2,2	2,7

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31

Iturria: BBVA Research

18. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: ganbio-tasa (batez bestekoa)

Dolarrak (\$) moneta nazionalako	2009	2010	2011	2012	2013
Estatu Batuak (EUR USDko)	0,72	0,76	0,72	0,80	0,79
EDB	1,39	1,33	1,39	1,26	1,27
Erresuma Batua	1,56	1,55	1,60	1,59	1,64
Txina	6,83	6,77	6,46	6,25	5,94

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31

Iturria: BBVA Research

19. Koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)

	2009	2010	2011	2012	2013
Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
EDB	1,00	1,00	1,10	0,75	0,75
Txina	5,31	5,81	6,56	6,06	6,56

Aurreikuspenen itxiera-data: 2012ko urtarrilaren 31

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

Dokumentu hau nahiz bertako datu, iritzi, estimazio, aurreikuspen eta gomendioak Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.k (aurrerantzean "BBVA") egin ditu, bezeroei argitaratze-datako informazio orokorra emateko asmoz, eta aurretiko oharpenik gabe alda daitezke. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen, ez aldaketa horien berri emateko, ezta dokumentu hau eguneratzeko ere.

Ez dokumentu hau, ez jasotzen duen edukia, ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, ez eta inolako balore edo finantza-tresna harpidetzeko edo inbertsioak egin nahiz desegiteko bide ere, eta ezin dute ezein kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri izan.

Dokumentu hau eskura duten duen inbertsiogileak argi izan behar du bertan aipatzen diren balore, finantza-tresna edota inbertsioak desegokiak izan daitezkeela dituen inbertsio-helburu espezifikotarako, duen finantza-egoerarako edo arrisku-profilerako, ez baitira kontuan hartu dokumentu hau prestatzerakoan; horren ondorioz, nor bere inbertsio-erabakiak hartu behar ditu, inguruabarrak kontuan izanda eta beharrezko lukeen aholkularitza zehatz eta espezializatua lortuta. Dokumentu honen edukia publikoki eskuragarri dauden informazioetan oinarritzen dira, eta fidagarritzat jotzen diren iturrietatik lortu dira; baina informaziook ez ditu BBVAk modu independentean egiaztatu, eta, hortaz, ez du inolako berme berariazko edo inpliziturik ematen berorien zehaztasun, osotasun edo zuzentasunaz. BBVAk ez du bere gain hartzen dokumentu hau edo berorren edukia erabiliz zuzenean edo zeharka gerta litekeen galerarik. Inbertsiogileak gogoan izan behar du balore eta finantza-tresnen iraganeko bilakaerak edo inbertsioen emaitza historikoez ez dutela bermatzen etorkizuneko bilakaerarik edo emaitzarik.

Balore eta finantza-tresnen prezioak edo inbertsioen emaitzak gorabeherak izan ditzake inbertsiogileen interesen aurka, hasierako inbertsioa galtzeraino. Geroko transakzioekin, aukerekin eta baloreekin edo errentagarritasun handiko finantza-tresnekin (high yield securities) egindako eragiketek arrisku handiak sor ditzakete, eta ez dira egokiak inbertsiogile guztientzat. Izan ere, zenbait inbertsiotan, galerak hasierako inbertsioa bera baino handiagoak izan daitezke, eta kasu horietan beharrezkoa da ekarpen gehigarriak egitea galera guztien estaltzeko. Horregatik, tresna horiekin eragiketak egin aurretik, inbertsiogileek horien nondik norakoen jakitun izan behar dute, dagozkien funtzionamendu, eskubide, betebeharrak eta arriskuak zein horien azpiko baloreak kontuan hartuta. Gerta liteke bigarren mailako merkatuak ez izatea tresna horientzat.

BBVAk edo Grupo BBVA taldeko edozein erakunde nahiz horietako zuzendari edo langileek partaidetzaren bat izan dezakete dokumentuan aipatutako balore edo finantza-tresna horietan, zuzenean edo zeharka, edo horiekin zerikusia duten beste edozeinetan; balore edo tresna horien salerosketan jardun daitezke, euren edo hirugarrenen izenean, aholkularitza edo bestelako zerbitzuak eman diezazkiekete balore edo tresna horien jaulkitzailei, horiekin zerikusia duten enpresei edo berorietako akziodun, zuzendari edo enplegatuei, eta interesak izan ditzakete edo ezein salerosketa burutu dezakete balore edo tresnokin, edo horiekin lotutako inbertsioak egin ditzakete, dokumentu hau argitaratu baino lehenago edo ondoren, indarrean den legeak baimentzen duen heinean.

Salmenta-saileko edo beste sail bateko enplegatuek, BBVAkoek nahiz Grupo BBVA taldeko beste erakunde batekoek, merkatu-iruzkinak egin ditzakete, ahoz zein idatziz, edo inbertsio-estrategiak zehaztu diezazkiekete bezeroei, dokumentu honetako iritzien kontra; hein berean, BBVAk edo Grupo BBVA taldeko ezein erakundek bere izenean inbertsio-erabakiak har ditzake, dokumentu honetako gomendioekin bateragarri ez izan arren. Dokumentu honetako ezein zati ezin da (i) edozein era, euskarri edo baliabide erabiliz kopia, fotokopiatu edo bikoiztu, eta ezin da (ii) birbanatu edo (iii) aipatu, BBVAren aurretiazko baimen idatzirik gabe. Dokumentu honen zatirik ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali lekuan lekuko legeek debekatua duten herrialdeetara (eta ezingo zaie helarazi hango pertsonari edo erakundeei). Murrizketa hauek ez betetzeak dagokion legedia haustea adieraz dezake.

Erresuma Batuan, dokumentu hau honako hauei banatuko zaie soilik: (i) legeak aurreikusitako inbertsioetan eskarmentu profesionala duten pertsonari, betiere 2005eko aginduko (emendakinak barnean hartzen dituen inbertsioan, aurrerantzean "agindua") 2000. urteko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legeak (finantza-sustapena) 19(5) artikuluan dioenaren arabera; edo (ii) ondare handiak dituzten erakundeei, betiere aginduaren 49(2) artikulua (a)tik (d)rako ataletan zehazten duenaren arabera; edo (iii) legeak inbertsio bat egiteko gomendio edo proposamena jaso dezaketen pertsonari (2000ko finantza-zerbitzu eta -merkatuen legearen 21. artikulua adierazten duenaren arabera) (aurrerantzean, pertsona horiek guztiak "pertsona adierazgarri" izango dira). Dokumentu hau pertsona adierazgarriei soilik zuzentzen zaie, eta pertsona adierazgarri ez direnek ez lukete berau oinarri hartu behar, ez eta beronen arabera jokatu ere. Dokumentu honetan aipatzen diren inbertsioak edo inbertsio-jarduerak soilik pertsona adierazgarrientzat daude eskuragarri, eta pertsona adierazgarriekin soilik gauzatuko dira.

Dokumentu honen ezein zati ezingo da erreproduzitu, eraman edo bidali Ameriketako Estatu Batuetara, ez eta hango norbanako edo erakundeei helarazi ere. Murrizketa hauek ez betetzeak Ameriketako Estatu Batuetako legedia haustea adieraz dezake.

Txosten hau egin du (den analista edo egile(ar)en ordainsari-sistema aldagai askoren arabera da, besteak beste BBVAk ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-sarreraren arabera da, zeharka, Grupo BBVA taldearen emaitzen arabera, inbertsio-bankuaren jarduerak eragindakoak barne hartuta, nahiz eta ez duten ordainik jasotzen inbertsio-bankuaren inongo eragiketa zehatzen arabera.

BBVA ez da FINRAko kide eta ez dago horientzat aurreikusitako agerrarazte-arauei lotuta.

"BBVA Grupo BBVA taldearen Balore Merkatuko jokaera-kodeari atxikita dago; kode horrek, besteak beste, gomendioen harira, interes-gatazkak saihestu eta eragozteko jokaera-arauek ditu, informazio-mugak barne. Grupo BBVA taldearen Balore Merkatuko jokaera-kodea ikusgai dago ondoko web-helbide honetan: www.bbva.com / Gobierno Corporativo".

BBVA, S.A. banku bat da, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuen Nazio Batzordeak (CNMV) gainbegiraturik eta Espainiako Bankuaren erregistroan 0182 zenbakiarekin inskribaturik.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatueta *ekonomialari burua*

Rafael Doménech
+34 91 537 36 72
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso
+34 91 374 39 61
miguel.cardoso@bbva.com

Anabel Arador
+34 93 401 40 42
ana.arador@grupobbva.com

Joseba Barandiaran
+34 94 487 67 39
joseba.barandia@bbva.com

Mónica Correa
+34 91 374 64 01
monica.correa@bbva.com

Juan Ramón García
+34 91 374 33 39
juanramon.gi@bbva.com

Ángel Gavilán
+34 91 374 52 62
angel.gavilan@bbva.com

Félix Lores
+34 91 374 01 82
felix.lores@bbva.com

Antonio Marín
+34 648 600 596
antonio.marin.campos@bbva.com

Myriam Montañez
+34 954 24 74 8
miriam.montanez@bbva.com

Virginia Pou
+34 91 537 77 23
virginia.pou@bbva.com

Leticia Riva
+34 91 374 62 66
leticia.riva@bbva.com

Pep Ruiz
+34 91 537 55 67
ruiz.aguirre@bbva.com

Camilo Andrés Ulloa
+34 91 537 84 73
camiloandres.ulloa@bbva.com

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia

Garatze bidean diren Ekonomiak:

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com.hk

Garatze bidean diren Ekonomien Zeharkako Analisia

Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Ruiz
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Alejandro Puente
apuente@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez
juana.tellez@bbva.com

Perú

Hugo Perea
hperea@bbva.com

Venezuela

Oswaldo López
oswaldo_lopez@bbva.com

Mexiko

Adolfo Albo
a.albo@bbva.bancomer.com

Analisi Makroa, Mexiko

Julián Cubero
juan.cubero@bbva.bancomer.com

Garatutako Ekonomiak:

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
nathaniel.karp@bbvacompass.com

Finantza Sistemak eta Araudia:

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@grupobbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Pentsioak

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Arlo Globalak:

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo
s.castillo@bbva.com

Inguru Ekonomikoak

Berrikuntza eta Prozesuak

Clara Barrabés
clara.barrabes@bbva.com

Market & Client Strategy:

Antonio Pulido
ant.pulido@grupobbva.com

Equity Global

Ana Munera
ana.munera@grupobbva.com

Kreditu Globala

Javier Serna
javier.serna@bbvauk.com

Interes Tasak, Dibisak eta Lehengaiak

Luis Enrique Rodríguez
luisen.rodriguez@grupobbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Paseo Castellana, 81 - 7 solairua
28046 Madril (Espainia)
Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com